


A4068

Herri Ametsa Ikastola XXV. Urteurrena 1966-1991 / Herri Ametsa Ikastola. Donostia: Herri Ametsa Ikastola, 1991. 24 cm..

CASARES KULTUR ETXEA

Tokiko Bilduma

# HERRI AMETSA IKASTOLA XXV. URTEURRENA



1991  
1990 1989  
1988 1987 1986  
1985 1984 1983 1982  
1981 1980 1979 1978  
1977 1976 1975 1974  
1973 1972  
1969 1968  
1971 1970  
1967 1966

# 25. URTEURRENA 1966-1991



HERRERA - ALTZA - BIDEBIETA

Lege Gordailua: SS. 1065/90

Inprimaketa: Lit. Danona, Koop. Elk.  
Polg. Ugaldetxo - Oiartzun (Gipuzkoa)


---

## **AURKIBIDEA**

---

- AGURRA.
  - GURE IKASTOLAREN HISTORIA GOGORATUZ.
    - I. ORDUKO GIROA.
    - II. GURE IKASTOLAK ALTZA ZAHARREKO LURRETAN.
    - III. HERRERAKO IKASTOLAREN SORRERA.
    - IV. ALTZAKO IKASTOLA HASIERA HARTAN.
    - V. IKASTOLA HAZTEN.
    - VI. IKASTOLA SENDO.
  - GERTAKARI GOGOANGARRIAK.
  - AGURTZANE ANDEREÑOAREKIN HIZKETAN.
  - GAIAK:
    - I. "A", "B" ETA "D" EREDUAK ALTZA-HERRERAN.
    - II. EUSKARA ETA IKASTOLA.
    - III. "ESTRAESKOLARRAK".
    - IV. HEZKUNTZA SISTEMAREN ERREFORMA.
    - V. CRONOLOGIA DE UNA ASIGNATURA PENDIENTE.
    - VI. "HERRI AMETSA"REN AMETSAK ETA AMESKAITZAK.
-





Kaixo Herri Ametsaren lagun hori:

Aurten, Herri Ametsa Ikastolak bere sorreraren 25. urteurrena ospatzen du. Hogeitaboskada hau, instant batean joan bada ere, eguneroko lanean —Euskal Herriko bizitza bera bezalaxe— luze eta gogor egin da sarritan, nahiz eta beste askotan une itxaropentsuak eta betegarriak bizi izan.

Gure haurren hezkuntza, eta ikastolagintza, zutabe garrantzitsua zela herrigintzan eta, gogor ekin zitzaion, Euskal Herriko norberatasuna inoiz baino ezabatuago genuenean. Herreran, Altzan, Intxaurrondon, lagun talde finenetakoak mugitzen hasi ziren, bakoitza bere aldetik aurrena, batera geroago, Herri Ametsaren oinarriak gauzatu. Herri amets haren haziak loratuz joan dira uzta oparoa eskainiaz. Eta pozik aitortzen dugu, harro sentitzen garela haien lanaz.


Aurrerantzean, amets haien ildotik, lorpen berriak, sakonagoak eta zabalagoak, ditugu helburu. Horregatik, gaur, bidean geldiune bat eginaz, agur berezi bat bidali nahi diegu bihotzez, amets haiek egia bihurtzen aritu izan direnei. Eta era berean, bide egiten jarraituko dutenei, ilusioz eta etsi gabe aritzeko adorea opa diegu.

*Luis Mari Satrustegi*


Ikastolako Lehendakariak



**GURE IKASTOLAREN HISTORIA GOGORATUZ**  
***APUNTES PARA UNA HISTORIA DE NUESTRA IKASTOLA***



## 25 URTETAKO KRONOLOGIA



Ondoko kronika laburrean gure Ikastolari laguntza eskaini dioten askoren izenak agertuko dira. Denak biltzen saiatu bagara ere, baten bat faltako da beharbada, nahi gabe ahaztuta. Hainbeste laguntzaile izan ditu, izan ere, Ikastolak

25 urte hauetan! Eskerrik beroenak guztioi!

Eta etxekoez zer esan? Etxeko lankideen zerrenda egitea ezinezkoa da, luzearen luzez: irakasle, guraso, juntetako eta

hainbat batzordetako kide, bazkide, festa antolatzaile, ekonomia ekintzetan partaide, kirol eta kultura lanetan eragile, udal-ekuetan arduradun, Federazioan eta Elkartean ordezkari... ASKOREN lanaren fruitu da, benetan, Ikastola.

# GURE IKASTOLAREN HISTORIA GOGORATUZ

## APUNTES PARA UNA HISTORIA DE NUESTRA IKASTOLA

### I-ORDUKO GIROA.

#### Euskal kulturaren tunel luzea.

Urteak pasa dira. Bizitzak aurrera egin du eta ikastola ere —zorionez!— sendo bizi da gaur egun. Ez zaigu, hala ere, ahaztu garai haietako egoera neketsua. Ez zaigu ahaztu nolako tunel luzea igarozuen euskal kulturak gerra ondoko urte ilun haietan.

Tunel beltz eta hotza! Euskara etxe txokoetan zegoen nolabait gordea, kalera irteteko beldurrak. Eskoletan guztiz baztertuta, irrati-egunkarietan zokoratuta... “bixirik” irauten ere bazuen nahiko lan. Euskal dantzak, musika, literatura eta gainerako kultur agerpenak, berriz, hasieran galeraziak, kontrol estuaren pean eduki zituzten gero urte luzetan.

#### Argi batzuk iluntasunean.

Herriak, hala ere, ez zituen alde bateara utziak, hori ez. Ahal zuen guztietan agertzen zituen harro. Herriko jaietan ez zen inoiz euskal dantzarik faltako —Herrerakoa izan omen zen gerra ostean inguru hauetan eratu zen lehenbiziko taldea—, ez eta danborradarik, euskal kirolak, pilota partidurik eta horrelakorik... Gabonak ere ez ziren aitzakia txarra izaten Olentzero eta euskal kantak pozik kaleratzeko.

Tunel ilunaren barruko argi bakanak ziren horiek, herriak ahal zuenean pizten zituenak.

#### 60. hamarkada: aurrera berriro ere.

60.eko hamarkadaren inguruan gauzak biziagotzen hasi ziren: talde berriak sortu ziren Euskal Herrian, kultura eta politika mugimenduak suspertzen hasi ziren. Hitzaldiak antolatzen ziren, bilekarak deitzen, kultura ekintzak burutzen, kontzertu eta jaialdiak egiten...

Giro berria bizi zen, beraz, 60. hamarkadan: tuneletik irten nahia, euskal herriari arnas berria emateko gogoak.

Eta giro horren barruan hasi ziren sortzen ikastolak ere. Inguruko herri guztietan sortu ziren: Donostian, Pasaian, Erreterian, Irunen...

Gurean ere orduantxe hasi ziren aha-legendak.

*noso desierto que atravesó la cultura vasca en los duros años de la postguerra?*


*Las diversas manifestaciones de la cultura vasca —incluido, por supuesto, el euskera— estaban fuertemente controladas y marginadas, cuando no totalmente prohibidas. Pero el pueblo no las había olvidado. Fiestas patronales, fiestas navideñas... toda ocasión era buena para manifestar lo que se llevaba dentro.*

*En la década de los 60 el movimiento cultural vasco se anima. Se vive con ansias de renovación, de recuperar el tiempo perdido. Reuniones, conferencias, festivales... todo son iniciativas, ideas nuevas.*

*Y en ese ambiente surgen las ikastolas. Donostia, Pasaia, Renteria, Irún... todos los pueblos de nuestra zona se mueven.*

*¿Y nosotros?*

*El tiempo pasa, pero el recuerdo pervive. ¿Quién ha olvidado el largo y pe-*



1943. Herrerako dantza taldearen gerra ondoko lehen agerraldia.



Herrerako Luistarren dantzataldea Oñatin 1943. urtean.

Herrerakoa izan zen inguru honetako lehenbiziko taldea.

## II.-GURE IKASTOLAK ALTZA ZAHARREKO LURRETAN.

### Hiru auzo, hiru ikastola.

Altza, Herrera, Intxaurren: bakoitzak bere aldetik eman zituen lehen urratsak. Izan ere, lehenago herri bakarra izan zena hiru zati egina zegoen.

Hiru auzook garai batean herri bakarra osatzen zuten: ALTZA. Baina 1940. urtean Donostiara bildu eta haren auzo egin zuten lehen bere eskuko udalerrri izan zena. Horrekin batera, jakina, lehenengo batasuna desegiten hasi zen.



Altzako San Martzialetan Euskal Jaia. 1968  
Herriko jaietan ez zen inoiz euskal dantzarik faltatzen.



...edo euskal kirolak...

Bestelako eraginek ere —inmigratioak, industria joerek eta horrelakoek— alde banatara eraman zituzten hiru auzoak.

Horiek horrela, ikastola ere bakoitzak berea sortu zuen. Berea eta bere aldetik:

- HERRERAK 1966an, "Herri Ametsa".
- INTXAURRONDOK 1968an, "Gure Nahia".
- ALTZAK 1971n, "Altzako Ikastola".



Herrerako aurreneko Euskal Jaia. 1967ko Ekaina.

Lehen urrats haiek, beste hainbat ikastolak bezala, auzo horietako parrokiaren babespean eman zituzten gure hiru ikastolek ere.

Gerora, 1975-76 urtetik aurrera, baimen, kartila eta subentzioetarako indar handiago izateko elkarrengana bildu ziren hirurak. Urte batzutan batera ibili ondoren, Intxaurren bere bidetik jarraitzea erabakiko zuen.

Horiek, ordea, geroko kontuak dira. Hasiera eta lehen urratsak, esan bezala, nork bere aldetik eman zituen.

### Historia gogoratu.

Ondoko artikuluetan 25 urte hauetako historia jasotzen saiatuko gara:

- Herrerako Ikastolaren sorrera.
- Altzako Ikastola hasiera hartan.
- Herri Ametsa hazten. Hiru ikastolak bat.
- Herri Ametsa sendo. Mendiolako garaia.

Intxaurrendoko ikastolaren historia ez dugu hemen berariaz aipatuko. Izan ere, esan bezala, ikastola hori urte batzuk Herri Ametsaren barruan egin ondoren bere eskuko jarri zen berriz 1980-81 ikasturtean eta, entzun dugunez, haiek ere 25. urteurrena ospatzekotan dira. Orduan izango dute bere historia gogoratzeko aukera.

---

*Antiguamente Altza, Herrera e Intxaurren eran barrios de un único pueblo: ALTZA. Pero en 1940 Altza fue anexionado a Donostia. Y la dinámica posterior fue alejando a los tres barrios, antes unidos en un solo municipio.*

*Y, así, cada barrio puso en marcha su propia ikastola:*

- Herrera en 1966, "Herri Ametsa".
- Intxaurren en 1968, "Gure Nahia".
- Altza en 1971, "Altzako Ikastola".

*En 1975 se unieron para formar una ikastola más fuerte cara a conseguir permisos, cartillas, subvenciones, etc. Luego, a partir del curso 1980-81, Intxaurren seguiría su propio camino.*

---





25 lagun bildu ziren egun hartan eta erabaki sendoa hartu zuten: hurrengo ikasturtean bertan jarri behar zela mar-txan ikastola. Eta horretarako, hain zu-zen, BATZORDE BITARTEKO bat era-ttu zuten.

*Almo zedea aurrosa orainateko  
Batzorde Bitarteko au ezate san  
Londakari jarate tar Jos M<sup>o</sup>  
Londakariadq. Narranti tar Reho  
Jdar kari Muxika tar Arantxa  
Duru sai Jauregui tar Isma  
Narko ak Iturrutegi tar Xabier  
Muxika tar Xabier  
Larrazaga tar Luis  
Amazabat tar Arantxa*

### Lehen ikasturtea (1966-67).

• **Andereñoena** ondo konpondu zen, Maritxu Arrizabalagak eta Agurtzane Mujikak —herreratarrak biak— baiez-koa eman bait zuten.

• **Lekuarena** izan zen arazorik larriena. Batera eta bestera jo ondoren, azke-nean “Mendizaleak” elkarteak bere egoitza alokatu zion ikastolari, eskolak bertan eman ahal zitzen.


Ez bakean, halere: etxe hartako bizi-lagun batzuk salaketa aurkeztu bait zu-

ten, eskolak hasi eta berehala. Bitxia eta adierazgarria, hori dela eta, ikastolak ba-daezpada ere hartu “behar” izan zuen erabakia:


“Ikastolako aur denak “Mendizaleak” taldearen bazkide bezela izena ematea, sortu litezken gaiz-tasunak aurretik gertuaz”.

• **Gastuena** ere arazo izan zen, jakina, hasiera hasieratik. Diru laguntzaren be-harrean zen ikastola, inondik ere. Zer egin? Bazkideak biltzeari ekin zitzaion

E R R E R A I K O I K A S T O L A			hoja Nº II		
RELACION DE SOCIOS COLABORADORES PARA EL CURSO 1.966/ 1.967					
Nombre y apellido	Dirección	Cuota	Nombre y apellido	Dirección	Cuota
1.- José Jadregui	Comestibles Jauregui.-	A. 600,-	49.- Sres. Arrizabala	Guardaplata	M. 25,00
2.- Antonio Arruti	Villas Dobles,7, 12.-	M. 25,00	50.- Corta Aizpurua'tar Jaun-andreak.-A. J. Elósegui,16,19		M. 25,00
3.- Irurtia Zubizarreta	Ardek Izarra,bajo B.-	M. 25,00	51.- Sres. de Májica	Casa Agur,12 C.-	M. 25,00
4.- Sres. de Egaña	Ardek Izarra,bajo A.-	M. 50,00	52.- Juan Biain	Casa Agur, 58 A.-	M. 30,00
5.- Juan Arana Ayerza	Ardek Maites,bajo C.-	M. 25,00	53.- Sres. de Salaberria	Casa Agur, 19 A.-	M. 25,00
6.- Etxeburu'tar Patxi	Casa Picabea,3,12 Izq.-	M. 25,00	54.- José Miguel Echeberria	Picabea enea 4,22izq.-	M. 25,00
7.- José Miguel Landa	Villas Dobles,3,12.-	M. 30,00	55.- Iñaki Murua Arzac	Casa Picabea,7.-	M. 25,00
8.- Juan Garbizu	Casa Echeburua,bajo,B.-	M. 100,00	56.- Muniategui'tar Sabin	Agur Etxea,38 B.-	M. 50,00
9.- José M. Vadiello Arrieta	Alto Miracruz,30,32.-	M. 25,00	57.- Fausto Gaiztarro	Bidebieta	M. 50,00
10.- Máquinas Mill, S.A.	Jolasoquieta	M. 500,00	58.- Andrés Atorrasagasti	Aitor Etxea	M. 50,00
11.- Angel Santiago	Avd. J. Elósegui,15,A,48C	M. 25,00	59.- Demetrio Echeveste	Viata Alegre,48 izq.	M. 25,00
12.- Joseba Aulestia	Avd. J. Elósegui,38 A,38D	M. 40,00	60.- Sres. de Yarza	id. 48 der.	A.1.500,00
13.- Pedro Garmendia	Avd. J. Elósegui,15 A,48C	M. 25,00	61.- Iñaki Alquiza	Villa Dolores	A.1.000,00
14.- Saturnino Roteta	Casa Bide Alde, 28.-	M. 25,00	62.- Francisco Lasa	Avd. J. Elósegui,43	A.1.000,00
15.- Sres. de Loizaz	Avd. J. Elósegui,33	M. 25,00	63.- Sres. de Landa	Casa Lardi	M. 50,00
16.- Nicasio Roteta	id. 38,28	M. 25,00	64.- Juan Lasa	Villa Sasueta	A.1.000,00
17.- Dani Apalategui	Merceria		65.- Vda. de Corostola	Casa Goizabal	M. 15,00
18.- Joaquín Rodríguez	Casa Agur,38 der.	M. 100,00	66.- Pedro Mendizabal	Vlla. Argote 2. der.	M. 25,00
Javier Nogueras	B# San Antonio-Las Gemelas	M. 50,00	67.- Remueldo Murua	J. Goizabal 2. B.	M. 25,00
20.- Antonio Cortajarena	Avd. J. Elósegui,15A,58	M. 25,00	68.- Francisco Paralles	Mendi. viata 12	M. 100,00
21.- Muxika'tar Arantxa	id. 15,B,22izq.	M. 50,00	69.- Vda. de Asurmendi	Av. J. Elósegui 3-31	M. 50,00
22.- Muxika'tar Balendin	id. 15,B,22izq.	M. 50,00	70.- Iñaki Narrantia	Casa Tonabia 2	M. 25,00
23.- Claudio Olazola	id. 3,32	M. 50,00	71.- Iñaki Recalde	60	M. 25,00
24.- Sres. de Odrizola	Casa Ederrena	M. 50,00	72.- Patsy Tolroschupi	Calada J. Ignacio 1	M. 25,00
25.- Miren Aramburu	Pasteleria	M. 50,00	73.- Marga eta Barandika	Picabea-enea 9. 4. 8	M. 25,00
26.- Etxebefi'tar Mattin	Villa Argitze	A.1.000,00	74.- Murguiz eta Joseba (Mamen)	Av. J. Elósegui 15-715	M. 25,00
27.- Javier Oyarzabal	Perurene herri,38 der.	M. 50,00	75.- Iratxe eta Jose	Goizabal 2. A	A. 250
28.- Sres. Bereciartua	Avd. J. Elósegui,33,A,52 C.	A. 500,00	76.- Pedro Otegui	Picabea-enea 12,29	M. 25,00
29.- Sres. Alberro	id. 33,A,52	A. 500,00	77.- Eduardo Otegui	Vista Alegre	M. 25,00
30.- Celestino Berasategui	Casa Etxeburu 12 C.	M. 25,00	78.- Sres. Leborio	Ikasmen Eder	M. 25,00
31.- Jesús Eñal	Casa Goizabal	A. 500,00	80.- Jose Luis Mendizabal	Lao guetxo 31,29	M. 25,00
32.- Segundo Elósegui	Carquizano,1. (Sn.Sn.)	M. 50,00	81.- Txomin Murguiza	Casa Lardi	M. 25,00
33.- José Luis Guinea	Avda. J. Elósegui,7,69.-	M. 50,00	82.- Jose Salaberria	Av. J. Elósegui 30	M. 25,00
34.- Felipe Mendoza	Casa Arkaitz-gain,B,3,izq.	M. 25,00	83.- M <sup>o</sup> Petylandu	Casa Tbarbia 32	M. 25,00
35.- Eduardo Irastorza	Casa Goizabal,59,C.	A. 600,00			
36.- Ignacio Yarza	Yarza-enea	M. 50,00			
37.- Etxebefi'tar Eñamun	Txoko befi	M. 25,00			
38.- Xabier Garbizu	Avd. Felipe IV,6,52,C.	A. 600,00			
39.- Unanue Juaristi	Fabrica-Basorri	M. 25,00			
40.- José María Salaberria	Caserio Julimasene	M. 30,00			
41.- Sres. Urfa	Yarza-enea,bajo	M. 25,00			
42.- Uranga Gurruchaga'tar Jaun-andreak	Bella Viata	M. 25,00			
43.- Bonifacio Otegui	C. Pradera.-C-Echeberria,2	M. 50,00			
44.- Arantxa Aizpurua	Americano-enea,12 der.	M. 200,00			
45.- Sres. Burruchaga	id. 11,bajo	M. 25,00			
46.- María Añorga	id. 11,28 der.	M. 25,00			
47.- Sres. Egaña	id. 22 der.	M. 25,00			
48.- Juana Zaplain	Guardaplata	M. 25,00			



Aurreneko promozioa.  
Lehendabiziko Janartzea euskaraz. 1969



Etxeburua Etxea.

berehala, leku gehienetan bezala. Baita herrertarrek jator asko erantzun ere. Larogetik gora bazkide osatu ziren. I. Rekalderen esku geratu zen, hurrengo urteetan, bazkideon kuotak hileru, edo urtero, biltzea. Honi dei egin, hari gogorazi, bestearengana joan... ez zen lan makala!


Geroago etorriko ziren zozketak, txabol-sotoak eta horrelakoak. Zer ez, diru pixka bat biltzeko?

#### Arazoak hasiera hasieratik.


Horiek horrela, ikasturtea martxan jarri zen behintzat, 25 ikaslerekin. Berehala hasi ziren arazoak, ordea: urriaren 14ean Ikuskaria agertu zen ikastolan, gorrigo aipatu dugun salaketa zela medio.

Gauzak nahiko ondo konpondu ziren, halere, hurrengo urtean ikastola lekuz aldatuko zela agindu eta gero.


Ikastola gutxik izango zuten, horratik, Ikuskaritzaren horren bisita goiztarra!



Maritxu Garinen Etxea.



Elizaren lokala.



Mendi-zaleak Elkarte.




Ansatarren etxea.

#### Hurrengo urteetako "peregrinazioa"

• **Andereñoen** beharra nahiko ondo konpondu zen ondoko urteetan ere. Geure bailarak eman zizkigun hasiera haietako andereñoak: Ane Egia, Karmele Berasategi, Gema Elberdin, Arantza Mujika... Gero gehiago etorriko ziren, bertako nahiz urrutiagoko.

• **Lekuarena**, ordea, arazo zen urtero. "Peregrinazio" luzea egin zuen ikastolak:

- J. Elosegin, "Mendizaleak" elkartearen egoitza.
- J. Elosegin, Elizaren lokala.
- Etxeburuan, Santestebandarren etxean.
- Agur etxean, Ansatarrenean.
- J. Elosegin, Maritxu Garinen etxean.



Altzako Ikastolaren Gelak.

Joan-etorri asko, ikusten denez, Peruene-Berriko egoitzara iritsi baino lehen. Zenbait urtetan, gainera, batean eta bestean sakabanatuak eta barreiatuak egon ziren ikasleak. Gurasoek, berriz, bazuten nahiko lan gelak han eta hemen egokitzen.



Pedro Miguel, Altzako Ikastolako eragiletako bat, eta hasierako andereño Manoli.

## **NACE LA IKASTOLA DE HERRERA**

*El 16 de junio de 1966 se celebra la "reunión constituyente". Asisten 25 herreratarras y nombran de inmediato una COMISION responsable de organizar el curso 1966-67.*

*Se da inicio a las clases con 25 alumnos en la sede de la Sociedad "Mendizaleak", atendidos por las andereños herreratarras Maritxu Arrizabalaga y Agurtzane Mujika.*

*Más de 80 socios aportan ayuda económica.*

*Pero pronto empiezan las dificultades: denuncia por el local, visita de la Inspección... todo se arregla felizmente, pero comienza la peregrinación por diversos pisos del barrio hasta llegar a los locales de Peruene-Berri.*

*La contratación de nuevo profesorado no ofreció dificultades especiales. Jóvenes de la zona fueron constituyendo el primer grupo de profesores: Ane Egia, Karmele Berasategi, Gema Elberdin, Arantza Mujika... Luego vendrían más, procedentes de la zona o de zonas más alejadas.*

*Fueron muchos los que ofrecieron su ayuda a la ikastola en aquellos primeros pasos: Gertrudis Aranzabal, M.<sup>a</sup> Pilar de la Rosa, Pepita Zala, Iñaxita Muguruza y Jesusa Agirrebengoa, por ejemplo, facilitándonos títulos y cartillas; Kontxi Vesga, ayudándonos siempre en los trámites de la Delegación; el párroco de Herrera, D. Ramón Gaztelumendi, ofreciendo titularidad y apoyo para la autorización oficial...*



Altza Ikastolako zenbaiz guraso eta ikasle.

#### IV. ALTZAKO IKASTOLA HASIERA HARTAN.

##### Euskararik ez. Etxean atzerritar.

Lore guztiak dira ederrak, neguan sortutakoak ederragoak, neguak berak egiten bait ditu ederrago.

Era berean ezinezkoak diruditen ametsak dira ederrenak, ezinezkotasun horrek egiten bait ditu ederrago hor nonbait.

Eta Franco-ren garaian negu gorrian bizi ginelako eta euskararen lorea ezinezkoa zirudielako, horregatik hasi ginen beharbada euskararekin ametsetan, eta ametsetan ezezik, aurrepauso batzu ematen ere bai.

Garai hartan eta giro hartan "Ez dok hamahiru"koen kantak genituen buruan, Xabier Letek kantatzen zuen harako hura bereziki, "Euskara, jalgi hadi

plazara", Bernart D'Echeparek lau mende lehenago aldarrikatu eta lau haizetara zabaldutakoa.



Altzako plazan ez bait zen jada euskaraz mintzatzen eta mintzatzen zena atzerritartzat har bait zitekeen, kanpotik etorritako uholdearekin.

Hori bait zen Altzako euskaldun batzuen egoera: etxean jaio eta atzerritar sentitu. Eta batzuen diot... aitortu beharra bait dago, euskarari dagokionez bai altzatarrok eta bai euskaldunok aise amore eman izan dugula sarritan, kanpoko intxaurrak hobeak direlakoan.

##### Kontzientzia hartuz gero.

Beraz, honegatik edo hargatik, gazte batzu pentsatzen hasi ginen, euskararen iraupena eta normalkuntza ikastolekin lotuta ikusten genuelako.

Gogoratzen naiz nola joan ginen Altzako hiru parroketara, euskal abizenak zituén jendearen zerrenda egitera, eta gero nola joan ginen etxez etxe, ume euskaldunak aurkituko genituen esperantzarekin.

Batzuek ondo hartu gintuzten, baina beste batzuei martzianoak ginea irudituko zitzaie, haien aurpegiak ikusita.

##### Lagun eta laguntzaile onak!

Proiektua ateratzeko genituen posibilitateak ikusirik, jesuiten parrokan egin genuen lehenengo bilera, eta handik aurrera, guztiak Los Boscosen zeuden kaputxinoekin, Bixente eta Pedró Migelekin.

Beren etxea ezezik, multikopista ere eskaini ziguten Bixentek eta Pedro Migelek, ikastolako multikopista bihurtzeraino... beti beren irribarrearekin, neguko loreak baino ederragoa zen irribarre zabalarekin.

Espero dut Pedro Migelek eta Bixentek afari bana ordainduko didatela, beren goraipea egiteagatik, baina hori kontatuko dizuet hurrengo aldizkarian.



## Hasierako zenbait izen propio.

1.971ko udazkenean ireki zituen ikastolak bere ateak lehen aldiz, los bosco-tarrek DOHAIN eskaini zizkiguten lokaletan, lehen andereñoak Manoli Larrea eta Kristina Astigarraga izan genituelarik.

Hauek dituzue orduko batzordeetako izen batzu: Jabier Lekue, Joxe Mari Arraras, Maialen Mujika, Juan Antonio Gorosabel, Martin Elizasu, Luis Mari Ralla, Zabalegitarrak, Murotarrak, Juan Mariño, Kati Ruiz, Begoña Alkiza, Pedro Migel Ezkerra... Hasiera hartan Joxe Mari Yarza etortzen zitzaigun aholkuak ematera.

## Diru falta.

Zozketa batzu, Fagor-ek, Gorosabelen bidez erregalatutako garbigailua tartean, hileroko bonuak (itsuen eguneroko zozketarekin lotutakoak), txabol-sotoak, bazkideak... bururatzen zitzaigun guztia antolatzen genuen, sos batzu ateratzeko, kagüensos!

Egun batean "Seat 133" bat zozketa-tu genuen eta Realaren entrenatzailea zen Ormaetxeari tokatu zitzaion: handik, liga irabaztera.

Hortik aurrera mila istorio konta ditzaiket, hala nola helikoptero bat ikastolara erori zenean: gero jakin genuen euliko-  
ptero bat izan zela, letra baten alde.

Baina amak umetan esan zidan bezala, "Dakizunaz gutxi hitz egin, ez dakizunaz bat ere ez", eta hemen utzi behar ko dut lana: beste bat arte, Juliana!

*Jqan Mari Irigoien.*

Peruene-Berri etxeko gelak eta terraza.  
Gehiegizko zirudien.

## LA IKASTOLA DE ALTZA EN SUS COMIENZOS.

*Las cosas imposibles se nos antojan a menudo como los sueños más hermosos. Y en la época de Franco lo del euskera era un sueño, sencillamente un sueño. Pero no nos conformamos con soñar, nos pusimos a caminar. Los que hablábamos euskera, llegamos a sentirnos extraños en nuestro propio pueblo, algo había que hacer.*

*Nos juntamos un grupo de jóvenes y nos pusimos a confeccionar una lista de niños en edad escolar con apellidos euskaldunes, indagando en los archivos de las tres parroquias existentes en Altza. Así encontramos cierto número de niños posiblemente vasco-parlantes. En algunas casas nos recibieron bien; en otras en cambio, debieron pensar que éramos marcianos a juzgar por las caras que ponían.*

*En vista de que el proyecto era realizable, nos reunimos por primera vez en la parroquia de los Jesuitas, después lo*

*haríamos con los Capuchinos que estaban en Los Boscos: Bixente y Pedro Migel. Estos además de dejarnos su propio piso, nos dejarían su multicopista, hasta tanto que al final terminó siendo de la Ikastola de Altza.*

*La Ikastola de Altza abrió sus puertas por primera vez en el otoño de 1.971 en los locales que nos dejaron "Los Boscos". Las primeras andereños fueron Manoli Larrea y Kristina Astigarraga.*

*Estos son algunos de los nombres de aquella Junta de entonces: Jabier Lekue, Jose Mari Arraras, Maialen Mujika, Jose Antonio Gorosabel, Martin Elizasu, Luis Mari Ralla, Los Zabalegi, Los Muro, Juan Mariño, Kati Ruiz, Begoña Alkiza, Pedro Migel Ezkerra... Por aquel entonces solía venir a asesorarnos Joxe Mari Yarza.*

*Hicimos rifas, txabol-sotoas, captación de socios protectores... siempre buscando la peseta. En cierta ocasión sorteamos un "Seat 133", que le tocó al entonces entrenador de la Real: Ormaetxea.*



## V-IKASTOLA HAZTEN.

### Lege barruan.

Hasierako urrats timidoak sendotuz zihoazen. Egoera politikoak sortutako beldur eta ikarak suntsitzen ari ziren pixkanaka pixkanaka. Herritarrek gero eta konfidantza handiagoa zuten Ikastola-engan. Eskola-kartila lortzeko eragozpenak azkenik gainditu egin ziren. Herrerako Herri Ametsak 1.969ko Urriaren 2an lortu zuen legalizazioa. Intxaurrendoko Gure Nahia berriz, 1.970eko Otsailaren 12an izan zen legalizatua.

Ikastolarentzat bidea garbitzen eta zama nekeza nolabait eramankorragoa bihurtzen hasi zen.

### Peruene-Berri.

Garrantzi handiko garaia gertatu zen hau Ikastolarentzat. Ikasle kopuruaren gehitze nabarmena alde batetik, bestetik geroko Ikastola sendoaren oinarriak orduan jarri ziren.

Bazirudien peregrinazioa bukatua zela, ikasleak alde batean zein bestean barreiatuak egoteari ere bukaera eman behar zitzaion.

Beraz, 1970. urtean Peñaneko Elizaren lokalean gure orduko Lehendakaria, Jose M. Yartza, Peruene-Berri etxe azpiko lokala erosteari buruz mintzatu zen.

Donostiako bariantea egin behar zela eta etxe berri bat egiteari ekin zion etxerik gabe gelditu zen Herrerako zenbait jendek. Etxe horretan zituzten jarriak beren begiak Batzorde Zuzendarikoek. Etxe horrek Peruene-Berri zuen izena.

Lokala erabat 1.973. urtera arte ordaindu ez bazen ere, 1.971-1.972 ikasturtean ikasle guztiak elkarrekin egongo ziren. Lokala hiru miloi ondotxo pasea

ordaindu zen; handia zen, ordea, 1.100 m.<sup>2</sup>-takoa. Aurrezki Kutxaren mailegu bati esker azkenean Ikastola zerbaiten jabe zen.

Lokal zabal eta handia benetan Peruene-Berrikoa:


- Idazkaritza geļa.
- 10 ikasgela.
- Bi komun handi (neska eta mutikoentzat aparte).
- Patio itxia (ordurako dexente handia).

Gainera San Luis enparantza bertanxe eta goiko terraza haur txikiak jolas-tu ahal izateko. Gehiegizko zirudien, sinestezina.

### Altza, Herrera eta Intxaurrendoko Ikastolen arteko Koordinakundea.

Geroari begiratu beharra zegoen; bailarako gainontzeko ikastolak ere hazten ari ziren. Ikasleen geroari begira erantzunkizun handia zuten ikastolek.

Batetik, hiru ikastolek bakarka eta ba-koitza bere aldetik zailtasun handiak zi-



Gure Nahia Ikastolako lokala. 1970-71 ikasturtea.



Intxaurrendoko Gure Nahia ikastolako ikasle eta irakasle talde bat.



tuzten kartilak eta diru-laguntzak lortzeko. Izan ere, elkartu beharra zuten ikasle kopurua eta O.H.O.-ko maila guztietako gelak behar bezala osatu ahal izateko. Bestetik, Errenterian lizeo baten atzetik zebiltzan, eta Lezo, hiru Pasaiak, Herrera, Altza eta Intxaurrondo ere elkartu egin ziren zerbait egin nahian. Pasaiako Udalak Donibanen lursail batzu eskaini zituen Lizeoa eraiki ahal izateko. Hemengo ikasleontzat urrungi ez ote zen hura, Pasaiako haurrak Lizeo horretan sartzeko lehenak ez ote ziren izango... Halako burutapen eta eztabaida luzeetan ihardun ondoren, 1.974. urteko Urriaren 3an Altza, Herrera eta Intxaurrondoko ikastolen arteko Koordinakunde horren barruan jende askok hartu zuen parte era batean zein bestean, baina hasiera-hasieratik gehien bat Arizti, Goñi eta Kuesta hirukotea saiatu zen.

Arizti jaunak, lehendakari zelarrik, 1.975eko Otsailaren 23an egindako Biltzarre Nagusian, Pasaia Donibaneko Lizeoaren proiektutik kanporatzea eta gure arteko Lizeo Berria bultzatzea proposatu zuen. Erabakia gehiengo zabal batez proiektu berriaren alde suertatu zen.

### Herri Ametsa, Elkarte Anonimoa.

Herri Ametsa, Gure Nahia eta Altza-ko Ikastola Elizaren babespean ari ziren heziketa alorrean. Ez zuten ordea, inolako pertsonalitate juridikorik. Salerosketak egiteko, berauek eskrituratu ahal izateko... nahita-ezkoa zen sozietate bat sortzea.

Itilua Kooperatiba ala Elkarte Anonimoa izan behar zuen planteatu zenean sortu zen. Azkenik, Elkarte Anonimoak

baldintza hobeak zituela eta 1.975eko otsailean "HERRI AMETSA, E.A." eratu zen.

### Diru beharrak.

Ekonomi egoera larriak estutzen zuen Ikastola. Bileretan denborarik luzeena ekonomia arloak bereganatzen zuen: soldatak, aseguroak, zorrak, kuotak nola moldatu. Kontuan hartu Gure Nahia Ikastolak erabiltzen zituen lokalak ere 1.976ko Uztailaren 23an erosi zituela Herri Ametsa, E.A.-k.

Gauzak horrela, eta zorrak arintzeko guraso bakoitzak 25.000 pezeta emateaz aparte, dirua ateratzeko eratzen zen edozein ekintza ongi etorria zen: Merkatu Txikiak, Intxaurrondoko Ziklokrosa, Txabol-Sotoak, Egutegiak, Loteria... Eta subentzioa, zorioneko subentzioa!


<b>HERRI AMETSA IKASTOLA, S. A.</b>	
Peruene-Berri s/n - Herrera	ZENBAKIA _____
DONOSTIA	HARPIDUNAK _____
HOGEITA BOST MILAKO gardekin hau, izenezko akzio BAT-egalik trukatu izango da Herri Ametsa Ikastola, S. A.-k argitaratzen duen egunean bertako harpidearen trukea, horretarako _____	
_____ Jaunak eta _____	
_____ helbidez, lehen aipatu den kantitatea Ikastolako kontu korrantean sartuz ematen du.	
Donostia 19 _____	
HERRI AMETSA IKASTOLA, S. A. - tik	
N.º _____	
SUSCRIPCIONES	
Este resguardo por valor de VEINTICINCO MIL PESETAS, será canjeado por UNA acción nominal en la fecha que Herri Ametsa Ikastola, S. A. haga público el canje de la presente suscripción, para lo cual D. _____	
entrega la cantidad citada mediante ingreso en cuenta corriente de Herri Ametsa Ikastola, S. A.	
Donostia 19 _____	




Donostiako haur-danborradan Herri Ametsa Ikastola izan zen Ikastoletan aurrena.



1981. Ikastolako ihauteriak.



1979ko jaialdia Ekainaren 23an. Herensugea.



Udalekuetan.

Makina bat paper bete ondoren, beste horrenbeste buelta eman eta gero (zenbaitetan Madrileraino), 1.974-1.975 ikasturterako lortu zen aurreneko Madriliko diru-laguntza. Izan ere, ikasturte horretan osatu zen lehenengo aldiz O.H.O.-a maila guztietan. Aurrekontuetan begiratu gero ordea, 1.976-1.977 ikasturtean azaltzen da lehendabiziko sumentzio partida.



Dantza taldeko neskak.

### Eskolaz kanpoko ekintzak.

Solfeoa eta txistua izan ziren seguruasiki ikastolan eman ziren aurreneko ekintzak, estraeskolarrak alegia: haurtxoen belarriak hezitzen hasteko.

Bailarako eskola asko dira gaur egun igerian ikasteko haurrak piztinara era-

maten dituztenak, baina Ikastola hasi zenean bakarra zen, aurrena.

Urtez urte Herrerako enparantzan Eguberri egunean Jesusen Jaiotza antzezten zuten Ikastolako haurrek.

Olentzero, Santa Ageda, Ihauteriak... Kalez kale ibiliaz.

Danberrada: Donostiako haur danborradan atera zen lehenengo Ikastola, ikurriña eta guzti, gurea izan zen.

O.H.O.ko bigarren zikloko neska-mutilak zenbait urtetan antzerkiak eratu eta antzezten ihardun ziren.

Urte bukaerako jaialdiak: kantak, txisteak, antzerkiak. Kurtsoari amaiera on bat emateko.

Haur, irakasle eta gurasoen arteko kurtso bukaerako eskurtsioa: Altsasua, Lizarra, Lekaroz, Urbasa... Orain Mendiolan bertan egiten dena.

Udalekuetan ere biziki hartu izan du parte Ikastolak.

### Irakasleon kezka.

Askotan eta Ikastolak zeraman abiadaren inertziak eraginda zenbait atal

motz geratzen ziren. Esate baterako, testu edo gida-liburuak oraindik euskaratu gabe zeuden maila askotako gaietan. Egia esan, hori konpontzea ez zen Ikastolaren eskutan. Alor hori Ikastolen Elkartek zuen hartua bere gain.

Bestalde, bete behar ziren Ministerioak ezarritako programak eta erabiltzen ziren erdal testuak, ez zetozen bat euskal munduarekiko. Hargatik gauza horietaz hitzegiteko eta zer nahi zen erabaki sakon bat hartzeko bilera bat antolatu zen Zubiaurreko gela handi batean, 1967ko udaran. Han bildu ziren Batzorde Zuzendaritzakoak, komisio guztiak eta irakasle denak. Guztira berrogeitamar bat pertsona.


Bertan, ikastolak ikaslearen heziketan zer nolako helburua izan behar zuen eztabaidatu zen: Euskara eta gaiak euskaraz ematez konformatu behar ote zen,

edota ikasle euskaldun peto-petoea lortu behar zen, euskal kulturaz jantzia. Bigarren aukera honi eutsi zitzaion noski, baina hartarako hemengo geografia, euskal historia, literatura euskalduna... programatu beharko ziren, programa ofizialak murrizten baziren ere.

### Berriro leku falta.

Eskolaurrea auzo bakoitzean mantentzen da, halare Peruene-Berri motz geratzen ari zen, ezin denak ondo sartu; berriro erromes.

Oraingoan O.H.O.ko 5., 6., 7. eta 8. mailako ikasleek aldegin behar izan zuten, Intxaurreko Salesianoen "Maria Auxiliadora" ikastetxera, Puyadena Salesianoak dohain utzi bait zituen behar ziren gelak 1.975-1.976 ikasturtea eman ahal izateko. Han jarraituko zuten maila horretakoek Mendiolara igo arte.



Salesianoek dohain utzitako gelak.

### Lizeo Berria amets.

Koordinakundea jo ta ke ari zen, lizeo berria non kokatu eta nola finantziatuko ote. Derrigorrezkoa zen behar bezalako ikastetxe bat eraikitzea. Altzan, Astigarragan, Intxaurrekoan zenbait terreno begiratu ondoren, batzu urruti besteak garesti, Juan XXIII Eskolaz erreparatu ziren, baina haren jabearekin ezin izan zuten akordiorik egin.

Gauzak horrela zeudela, Gotzon Mujikak jakin zuen Mendiolan lursail bat salgai zegoela. 1.977ko Apirilaren lehen 19.116 m.<sup>2</sup> zituen lursail hori ia sei miloitan (eskriturak eta guzti) erosi zen. Finantziabidea bi Aurrezki Kutxen Maileguetan oinarritu zen.

## LA IKASTOLA CRECE.

Se empieza a perder el miedo al que nos tenía sometidos a aquella situación política. Se consiguen las Cartillas de Escolaridad. La gente va cogiendo confianza en la Ikastola.

Cada vez vienen más niños, los pisos que nos dejan se quedan enseguida pequeños. Hay que hacer algo, Jose Mari Yarza, presidente a la sazón, propone la adquisición de los bajos de la casa Peruene-Berri. Por fin en el curso 1.971-1.972 se encontrarán todos los alumnos juntos en un mismo local.

Pasa el tiempo y las subvenciones no llegan, todo son pegas. Hay que completar el número de alumnos por cada clase y dar todos los niveles. Por otra parte, después de andar semiembarcados en el proyecto del Liceo Pasai, se decide abandonar dicho proyecto e impulsar el nuestro propio en nuestra bailara. La buena voluntad no es suficiente; hay que aunar esfuerzos, la unión hace la fuerza y así surge la Coordinadora de las Ikastolas de Altza, Herrera e Intxaurre. En febrero de 1.975 la ikastola se constituye en Sociedad Anónima pasando a llamarse Herri Ametsa, S.A.; previamente tuvo lugar un largo debate de si habría de ser Sociedad Cooperativa o Anónima.

Dadas las inversiones que se preveían, cada padre tuvo que poner de su bolsillo 25.000 pesetas. Pero aún no era suficiente y cualquier idea que sirviera para sacar dinero era bien acogida: Merkatu Txikia, Ciclocross de Intxaurre, Calendarios, Loterías... Y por fin llega la tan perseguida subvención, ésta se verá reflejada en el presupuesto del curso 1.976-1.977.

Pero subyace una onda preocupación y a pesar de que los temas económicos nos rebasan y absorben una parte impor-

tante del tiempo, hay que pararse y reflexionar sobre el tipo de educación que se desea dar. Ni el programa oficial que se exige cumplir, ni los libros de texto en castellano están pensados para Euskadi ni para un niño euskaldun. Realmente, ¿cómo se desea educar? ¿Qué se pretende conseguir? Hay que tomar medidas ya, hay que decidir lo que se quiere hacer. Es en Zubiaurre el verano del año 1.977 donde se reúnen la Junta Directiva, los profesores y todas las comisiones, en total más de cincuenta personas. Se piensa que el niño no sólo tiene que aprender euskera y las distintas materias en euskera. Se piensa, y así se decide, que el alumno de la Ikastola Herri Ametsa debe además adquirir una cultura vasca lo más completa posible para ser euskaldun, y deberá para ello adquirir conocimientos entre otras cosas de literatura, geografía e historia vasca, aunque ello pueda redundar en detrimento del cumplimiento del programa oficial de estudios. La decisión de los padres fue clara: no les importaba que en matemáticas o en otras asignaturas sus hijos en vez de sacar 10 fueran a sacar 6 o 7 puntos, con tal de que fueran euskaldunes.

De nuevo sin sitio para todos, los alumnos del 2.º ciclo de E.G.B. se ven obligados a emigrar. A partir del curso 1.975-1.976 han de desplazarse al Colegio "María Auxiliadora" de los Salesianos de Intxaurre.

Después de mucho patear al fin se da con el terreno idóneo para el nuevo Liceo. Se encuentra en Mendiola, mide 19.116 m.<sup>2</sup> y se realiza la compra el 1-4-77 por casi seis millones de pesetas incluidas las escrituras. Se da, pues, un paso importante, muy importante en el proceso de consolidación de la Ikastola Herri Ametsa.

## VI.-IKASTOLA SENDO.

### Ametsak egia.

Ametsak egia bilakatzen ari ziren, neurri handi batean behintzat asmoak mamituz zihoazen. Ondorengo urratsak emateko bidea ondo markatua zuen Ikastolak.

Pausoz pauso lo hartu gabe Ikastola sendotzen zihoan. Horrela iruditu zitzaion ere Donostiako Gotzaiari. Haren ustetan ez genuen dagoeneko Elizaren babespean jarraitu beharrik. Hortaz, Donostiako Gotzaitegiko Bikario Nagusiak Herri Ametsa Ikastola Elizaren babesatik kanpo geratzen zela jakin erazi zuen iskribu baten bidez. Hau 1.979 urtean gertatu zen.


### Mendiola.

O.H.O.ko ikasleek estrenatu zuten Mendiolako Ikastetxe berria. Mendiola-ko Ikastetxea, ordea, herren gelditu zen; hirugarren edifizioa egokitzea falta zitzaion, oso-oso egina egoteko. Mendiolako ateak 1.979-1.980 ikasturterako ireki ziren.

Eskolaurreko ikasleek oraindik bakoitzak bere auzoan jarraitu beharko zuten.

### Eskolaurrearen bateratzea.


Zorretan kokoteraino sartua zegoen Ikastola. Diru arazoak zirela medio auzo desberdinetako Eskolaurrea kentzea erabaki zen 1.980ko Irailaren 2an egindako gurasoen Biltzarrean. Ikasle guztiak Mendiolan bateratzea zen azken helburua. Baina ezinbestean eta erdipauso gisa Eskolaurreko haur guztiak Perueneberriko lokalean biltzeko erabakia onartu zen.



Eskolaurrekoen parkea.




Musika gela.




Autobus zerbitzua.



Heziketa berezia.



Ikasgela bat.




Informatika gela: Arlo pedagogikorako.



Intxaurrendoko Gure Nahia Ikastolako gurasoek seme-alabak Herrerara ez bidaltzea erabaki zuten. Haurrak horren txiki izaki urrutiegi zela eta gainera Eskolaurrea auzo bakoitzean mantentzea hobe zela adierazi zuten. Halare O.H.O.ko ikasketak egiten ari ziren ikasleek Mendiolara joaten jarraituko zuten.

1984. urtean Herri Ametsa E.A.-k Intxaurrendoko gelak 3.500.000 pezetatant saldu egin zituen.

Urte horretan bertan Intxaurrendoko Gure Nahia ikastola Herri Ametsaren proiektutik kanpo geratu zen.



### Denak Mendiolan.

Azkenik Mendiolan egokitu behar zen hirugarren edifizioa osatu egin zen. 1984-1985 ikasturtean Peruene-Berriko Eskolaurreko haur guztiek Mendiolara joan behar izan zuten. Behingoz, Herri Ametsa ikastolako ikasle guztiek elkarrekin egoterik izan zuten zorioneko ikasturte hartan.

Zorrak eta gastuak arintzeko, ordea, 1.985eko Martxoan Peruene-Berriko lokala, akordio batera ailegatu eta gero, Donostiako Udalarari saldu zitzaion.



Eskulanetarako gela.



Laborategia.



Argazki laborategia.

Mendiolako instalazioak egun hiru edifizio ditu ardatz eta bertan:

- 22 ikasgela (6 eskolaurrekoentzat eta 16 O.H.O.-koentzat).
- Heziketa Berezirako gela bat.
- Plastikarako bi gela.
- Musika gela.
- Bi gela euskara lantzeko.
- Liburutegia.
- Laborategia.
- Aldagelak.
- Sukaldea.
- Jangela.
- Jinasio estalia.
- Pilotaleku estalia.
- Bi futbito zelai.
- Eskubaloia eta saskibaloian aritzeko beste zelai bat.
- Eskolaurrekoentzat parkea.

Garai bateko asmo eta amets hura egia bihurtu zen azkenik.

### Zenbait berrikuntza.


Garai honi bagagozkio, zenbait aldaketa eta berrikuntza gertatu ziren.

Adibidez, 1.982. urtean "Mendiola" aldizkaria ateratzea erabaki zen. Irakasle, ikasle eta gurasoen lanak aurkezten ziren. Tirada 700 aletakoa zen, 400 ale gurasoentzat eta beste 300ak libre banatzeko. Benetan ideia txalogarria!

1.982-1.983 ikasturteetik aurrerantz Ikastolan Frantsesa irakatsi beharrean Ingelesa irakasten zen gurasoek hala eskatuta.

1.984-1.985 ikasturteetik aurrera goi zikloan Erlijioa edota Ekolojia aukeratu izango zuten ikasleek.

Etenaldi baten ondoren 1.981. urtean



BATZORDE OROKORRA.—Guraso guztiak.

GESTIO BATZORDEA.—Lehendakaria, lehendakari-ordea, idazkaria, diruzaina, administraria, zuzendaria.

Kulturaleko ordezkaria, kirolleko ordezkaria, beste bi guraso eta ziklo bakoitzeko arduraduna.

PERMANENTEA.—Lehendakaria, Zuzendaria eta Administraria.

TALDE PEDAGOGIKOA.—Ziklo bakoitzeko arduradun bat, denetara 4, eta zuzendaria.

Mikel Maisua solfeoa eta txistua irakasten hasi zen eta txistulari talde bat osatu zuen.

Garai horretan ere, euskararen erre-

fortzurako bi gela berezi ipini ziren.

1.986-1.987 ikasturtean Heziketa bereziari bere lekua ematen zitzaion Ikastolan.



1.986ko Maiatzaren 16an egindako Biltzarre Nagusian IKASTOLAREN GESTIO ETA FUNTZIONAMENDUA

deritzan arau bilduma onartu zen. Bertan organigrama berria eskaintzen zen, komisió eta batzorde guztien zereginak

zehazten ziren; hitz batean, talde zuzendaria berrantolatatu egin zen.

Herri Ametsa Ikastola  
Mendiola

Mendiolan 1989ko Otsailak 9

**AZTERRALDIAREN AKTA**

**ACTA DE ESCRUTINIO**

1988ko Martxoaren 22ko Batzar Nagusian hartutako erabakitik abiatuz, bertan konbenioa hontzat jo zen eta ondoren gure kontsultara jo dugu, hau da, ondarea emanda edo eman gabe.

Partiendo de la decisión adoptada en la Asamblea General del 22-3-88 en la cual se acordó optar por el Convenio se pasa a consultar si nuestra aceptación es con Cesión del Patrimonio o NO.

**BOTAZIOAREN ESANAHIA**

**SIGNIFICADO DE LA VOTACION**

BAIEZKOA - Ondarea emanda  
SI - aceptar la CESION del Patrimonio.  
EZEZKOA - Ondarea eman gabe  
NO - optar por la NO CESION del Patrimonio

**BOTAZIOAREN EMAITZA**

	<u>RESULTADO DE LA VOTACION</u>	
	<u>BOTOAK-VOTOS</u>	<u>PORTZENTAIA-%</u>
ZENTSUA / Censo	404	
BOTOEMAILEAK / Votantes:	270	66,83
BAI / Si	243	90
EZ / No	26	9,63
TXURIAK / Blanco	1	0,37
BALIO GABE / Nulo	0	0

Lehendakaria

Zuzendaria

Idazkaria

  
Koldo Aulestia

  
Marixabel Irizar

  
Jon Zurutuza

**Pil-pilean dauden gaiak.**

Gaur egun Ikastolarekin zerikusia duten legeak hor ditugu:

- Euskal Eskola Publikoarena.
- Hezkuntza Sistemaren Erreformarena.

Ez gara hemen esplikatzeko hasiko zertan diren bata eta bestea.

Euskal Eskola Publikoaren legea oraindik ez da Legebiltzarrean onartu, baina Herri Ametsa Ikastolak dagoeneko hartua du bere erabakia. 1.989ko Otsailaren 9an, Koldo Aulestia lehendakari zela, Biltzarre Nagusian Euskal Eskola Publikoaren Legeari buruzko jarrera azaldu zen debate luze baten ondoren egindako botazioan (ikus Akta).

Delako Erreforma, berriz, onartu den legea da eta, okerrik ez bada behintzat, 1.991-1.992 ikasturterako martxan egongo da.

Lege honen arabera irakaskintza obligatorioak 16 urte artekoa izan beharko du. Ziklo batek 12 urte arte iraungo du eta besteak 16 urte arte. Gure Ikastolan orain 14 urte arteko ikasleak ditugu. Hemendik aurrera ikastetxeek 12 urte edota 16 urte arteko ikasleak izango dituzte. Herri Ametsa Ikastolak bigarren aukera horri heldu ahal izateko, datorren ikasturterako BUP jartzeko baimena eskatua du dagoeneko.

Hartarako, behar bezalako azpiegiturak antolatzen hasteko garaia du, tarteko laugarren etxearen beharra. Beraz, asmo eta proiektu berriak...

## UNA IKASTOLA FUERTE.

Van desvaneciéndose las incertidumbres. Los sueños van transformándose en realidad. La Ikastola ya tiene una línea marcada, diseñada. Se construye en Mendiola la nueva Ikastola, pero subyacen los problemas económicos y por falta de dinero se deja sin habilitar el tercer edificio. Mendiola abre sus puertas para el curso 1.979-1.980 con todos los alumnos de E.G.B.

De nuevo los problemas económicos obligan a la Asamblea General a decidirse por la unificación de los tres centros de Preescolar en uno solo, esto es, en el local Peruene-Berri de Herrera, como solución de paso en tanto no se habilita el

tercer edificio de Mendiola. Los padres de Intxaurreondo deciden no mandar los niños de Preescolar a Herrera, manteniéndolos en Intxaurreondo.

Por fin se adecúa el tercer edificio de Mendiola y para el curso 1.984-1.985 los niños de Preescolar también suben a la nueva Ikastola, con lo que se reunifica todo el alumnado. En 1.985 en vista de que no hace falta y para aminorar las cargas se vende el local de Peruene-Berri al Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.


En asamblea celebrada el 16 de Mayo de 1.986 se aprueba el conjunto de normas contenidas en el documento denominado GESTION Y FUNCIONAMIENTO DE LA IKASTOLA HERRI

AMETSA. En el mismo se contemplan las funciones de los distintos elementos que componen el organigrama.

Hoy nos encontramos ante la posible aprobación por el Parlamento Vasco de la Ley de Escuela Pública Vasca. La ikastola en asamblea celebrada el 9-2-1.989 se pronuncia a favor de dicha ley por mayoría.

En cuanto a la Ley de Reforma Escolar, la Ikastola toma las medidas pertinentes y decide solicitar la instauración del BUP, con la finalidad de poder acogerse para el curso 1.991-1.992, en que entrará en funcionamiento dicha ley, a impartir la enseñanza hasta los dieciséis años. De lo contrario tendría que conformarse con hacerlo sólo hasta los doce.


## IKASTOLAKO IKASLE-KOPURUAREN GARAPENA.



- Lehenbiziko urteetan gorakada azkarra izan zen.
- Elkartetaren urtean, 75-76an, ikasleak 530 ziren.
- Erpina 79-80 urtean izan zen: 675 ikasle.
- Intxaurreondo banatu ondoren beherakada txiki bat dator.
- Azken urteotan ikastolak berak ipini dio muga matrikulatze kopuruari, gelak beteegiak gerta ez daitezzen.

## HERRI AMETSA

### Ikastolaren aurrekontu eta diru-laguntza ofizialen eboluzioa.





# GERTAKARI GOGOANGARRIAK



# GERTAKARI GOGOANGARRIAK

---

## Zeharkako bideen garrantzia.

Neketsua izan zen benetan diru-laguntzak lortzea "Transizio" edo Aldaketa Politikoaren lehen urteetan. Eta horren inguruan sortu ziren hainbat pasadizo ikastolan.

Horrela, 1975. urtea zelarik gutxi gorabehera, Eduardo Cuesta eta Agurtzane eta Karmele andereñoak Madrilera joan ziren, Estatuko subentzioen atzerapenagatik galdezka. Madrilen Hezkuntza Zuzendariarekin bilera bat izan zuten, baina honek ezjakinarena egin zuen, inongo txostenik ez zuela jaso esanez.

Bide horretatik gutxi lortuko zutela sumatuz, ekintzetara pasatzea erabaki zuten ikastolakoek. Honela, Zuzendaria bulegotik atera eta bakarrik utzi zituen une batez baliatuz, txostenak miatzeari ekin zioten Herri Ametsakoek eta arazo bera zuen beste ikastola bateko ordezkari batek. Miaketak bere emaitzak eman zituen, Zuzendariaren mahaian ikastolaren txostenak aurkitu bait zituzten. Horren ondorioz, Zuzendaria itzuli zenean, badaezpada bere mahaia berriz begira zezala eskatu zioten eta haren ezezkoari aurrea hartuz, beste ikastolako ordezkariak bere txostena atera zuen irekitako kajoitik. Zuzendariak ez zuen ezezka jarraitzeko aukerarik izan...

Zeharkako bideak erabili ziren, beraz, lehenengo diru-laguntzak lortzearen.

---

## Un asunto de colores.

*Pero las andanzas "detectivescas" no acabaron ahí. Como la experiencia es la mejor maestra, en la siguiente visita al Ministerio se hicieron con nuevas ayudas. Una persona acompañó a los representantes de la ikastola a través de las diversas dependencias del Ministerio.*

*Tras entrar en varios despachos, encontraron lo que andaban buscando. Descubrieron que la causa de la tardanza en la llegada de las subvenciones era un asunto de color: los informes de las ikastolas tenían un círculo rojo en el borde superior. ¿Clasificación ideológica?*

*Sea como fuera, para solucionar el problema, los visitantes cambiaron el distintivo rojo por uno azul, precisamente el color que tenían los colegios de frailes.*

*La operación funcionó y al mes llegó la ansiada subvención, con gran sorpresa de la Sra. Delegada de Gipuzkoa.*

---

## Zarzuelako ateetan.

Beste behin gorago ere iritsi ziren laguntza bila, Juan Carlos printzeagana hain zuzen ere. Marcelino Orejari eta Escudero jaunari esker, gerora Espainiako

Errege izango zenak ikastola desberdinetako ordezkari bat hartu zuen. Baina harrera bitxia izan zen, berau jauregiko lorategietan egin bait zen, Espainiaren batasunarekin zerikusia izan zitzaketen gorabehera batzuk tarteko. Hori bai, arazoa aztertuko zuela agindu zuen garai hartan Espainiako printze eta oinordekoa zenak.

---

## Una, grande y libre.

*Otra vez relacionaron la Ikastola con la ruptura de la unidad de España. El incidente ocurrió esta vez un día de San Sebastián. En aquella fecha, había llamada general para colgar la ikurriña en los balcones de Donostia, y coincidiendo con esta convocatoria, Herri Ametsa sacó por primera vez la bandera de Euskadi en la Tamborrada Donostiarra. Los aplausos y vivas fueron multitudinarios con la presencia en las calles de la bandera medio legalizada.*

*A consecuencia de ello, la Ikastola Herri Ametsa protagonizó un número de la revista de "Fuerza Nueva", en cuya portada aparecía una foto de nuestra tamborrada bajo el titular de "Traición a España". ¡Las ventas de aquél número fueron inigualables en Herrera!*

---

**fuerza  
nueva**

Con el visto  
bueno  
a la «ikurriña»





# TRAICION A ESPAÑA

## Kortabarria e Iribar.

No fue la única ocasión en la que la ikurriña protagonizó una anécdota en la Ikastola. En 1977 Herri-Ametsa editó un calendario en el que aparecía la pri-

mera ocasión tras el franquismo en la que se sacó la ikurriña en Atotxa, de la mano de Iribar y Kortabarria. Aquel calendario consiguió una gran difusión e incluso lo pedían desde toda Gipuzkoa y provincias limítrofes.





## Lehiaketa xelebrea.

Egutegi eta beste bitxikerien salmentaz gain, Ikastolak beste finantziabide garrantzitsu bat erabili zuten: "Txabol-soto" en antolaketa. Lana itzela zen benetan eta batez ere auzolanean eginda: nork sardinak merkeago lortu, hark ekarri. Edo festa girotzeko, musika antolaketa munduan zebilenak jartzen zituen bozgoragailuak. Horrela, urteko Ikastolak auzoko jaietan bere "txabol-sotoa" antolatzen zuten.

Baina txozna jarri bakarrik ez, han ere lanean aritu beharra zegoen. Betikoak zebiltzan gehienetan eta askotan ordu piloan zehar aritu ondoren, ekintza aspergaria bihurtzen zen. Hori zela eta, behin tortilak egiten zebiltzan hirurek beren eginbeharra alaitzeko lehiaketa xelebrea bati ekin zioten: tortila nork gorago bota! Ikuskizun atsegina bihurtu zen, eta tortila-pintxoaren salmentak asko ugaltu ziren gau hartan une horretatik aurrera.



Herri Ametsak biziki parte hartu zuen.

## Gracias a un piano.


Si los medios para conseguir dinero eran muchos, muchas eran también las deudas. La acumulación de estas deudas trajo alguna vez el cierre temporal de la Ikastola Herri Ametsa. En concreto el señor Oiarzabal, dueño de los locales de Peruene-Berri que ocupaba la Ikastola, hizo precintar éstos, porque Herri Ametsa no hizo efectiva la entrada de la compra. Para hacer frente a esta situación la Junta de la Ikastola se reunió con Oiarzabal.

Pero aquella reunión fue complicándose y viendo que se ponía cuesta arriba, Bengoa le hizo una propuesta al dueño de los locales: él le regalaba un piano si les perdonaba el retraso en la deuda. Aquello le pareció excesivo a Oiarzabal y rechazó la oferta. Entonces, Bengoa, ni corto ni perezoso le dijo que se lo vendía. A Oiarzabal le hizo gracia la propuesta y aceptó las formas de pago propuestas por la ikastola.

## 43 "gartzela" urte.

Gehienetan Ikastolaren alde egiteak piano bat baino zerbait gehiago eskatzen zien lan horretan zebiltzan gizon-emakumeei. Intxaurrendoko Ikastola, "Gure Nahia", sortu zenean garaiko batzordeko kideek beren etxeak hipotekatu zituzten, eskola emateko lehen lokalak egokitu ahal izateko.

Bestalde, Mendiolako proiektuak 110 miloiko mailegua eskatzea suposatu zuten. Beraz, mailegua eskatu zuten bakoitzak 43 "gartzela" urte zituen, zorra kitatu ezean.




## Nos aclararon algunas ideas.

Tampoco faltaron problemas con la Administración Educativa. Los inspectores del Ministerio de Educación evaluaban la labor de las Ikastolas. Y según esas evaluaciones los centros recibirían subvenciones o el permiso para continuar con su trabajo.

Una de aquellas inspecciones la tuvo que "sufrir" una clase de la andereño Karmele y en concreto fue la temida doña Josefa la inspectora en aquella ocasión.

En aquellas visitas era corriente preguntar a los niños y aquella vez doña Josefa le hizo la siguiente pregunta a uno de los alumnos: "¿Y tú niño qué eres,



vasco o español?" El pobre crío respondió que era vasco y todos los demás le imitaron uno por uno.

Ante semejante respuesta y enseñando el mapa del Estado Español, doña Josefa habló sobre la unidad de España y le dijo a la andereño Karmele: "¡A ver si les aclara esas ideas!"

### Guraso batzuen zalantzak.

Baina ez ziren ikuskariak kezkatzen ziren bakarrak. Ikastolan bertan guraso batzuk bazuten nahiko kezka. Bestelakoa zen, ordea, hauen beldurra: ikasketa mailari zegokiona zen hauen kezka. Euskaraz ikastea ondo dago, baina nahikoa ikasten ote dute gure hurrek? Beste ikastetxeetan adina bai? Horixe zen guraso askoren galdera. Eta kartilen gorabehera gainera...

Behin guraso batzuk semearen ikasketak maila ziurtatu nahirik, hau ikastolatik atera eta "betiko" ikastetxe batera eramatea erabaki zuten. Ikasle ona eta azkarra omen zen. Egin diote, bada,

ikastetxe horretan sarrera froga eta, harritzekoa, oso emaitza txarra izan du: ez du froga gainditu! Ikastolan jarraitu behar du. Gurasoak benetan kezkatuta daude eta andereñoek ezin dute ulertu: oso ikasle ona da eta!

Ikasleak berak argitu zuen dena handik pixka batera. "Ba al dakizu? —aitortu zion andereñoari—. Nik ikastolan jarraitu nahi nuen eta, horregatik, froga gaizki egitea erabaki nuen". Nahita gaizki, alegia.

### Pruebas y más pruebas.

La duda, con todo, seguía. ¿El nivel de conocimientos que imparte la ikastola será suficiente? Algunos padres veían bien que sus hijos hicieran el Preescolar en la ikastola, pero la Básica ni hablar. La Básica en colegios seguros.

Una madre llevó una vez a su hija, mediada la E.G.B., a hacer la prueba de entrada en un colegio. El resultado fue positivo. Había superado la prueba y la admitían en el colegio. "Pues bien —dijo

la madre—, que siga en la ikastola". ¡Había hecho la prueba para medir el nivel de la ikastola! Si la hija hubiera dado un nivel bajo, la hubiera sacado inmediatamente. Pero como dio buen nivel, podía seguir en la ikastola sin cuidado.

### Bapo afaldu zutenei.

Ume gaisoek aztertzaile nazkagarriak sufritu eta gero, askotan besteen erruak larrutik pagatu beharrean zeuden. Horren adibidea ondorengo istoriotxoak dakar: Ikastolako hiru gurasok (utz ditzagun bekatarien izenak ezezagun) Mendiolako egoitzaetik hurbil zebilen antxume bat harrapatu eta erreta afarian jan omen zuten. Horren errua gero, 8. mailako ikasleei leporatu zieten. Espero dezagun bekatu egite horrek on egingo ziela behintzat!

Kristina Zorita

# AGURTZANE ANDEREÑOAREKIN HIZKETAN



# AGURTZANE ANDEREÑOAREKIN HIZKETAN

Elkarrizketaren bat egin behar genuela bururatu zitzaigunean, elkarrizketagai izango litzatekeen pertsona egoki bat aukeratzeari ekin genion. Geure buruari galdera asko egin eta gero, andereño Agurtzane aukeratu dugu.

Nahiz eta ikasleentzat ezaguna izan guraso batzuentzat ezezaguna izan daitekeenez, aukera honen zergatia argituko dugu aurrena lerro gutxitan: Agurtzane Mujika ikastola sortzearen bultzagileetako bat izan zen eta, horretaz aparte, ikastolak bizi izan dituen aro ezberdin guztietan parte hartu izan du zuzenki.

—Kaixo, andereño, hasieratik gaur egun arte zeintzu dira ikastolan sumatu dituzun aldaketarik nagusienak?

—Hasteko, hezkuntza sisteman suma daitezke aldeak. Hezkuntzaren ardatza edo helburu orokorrak berdintsuak dira. Orain, ordea, giro akademiko batean ari gara. Izan ere, gizarte konpetitibo honetan, beste inork baino gehiago frogatu behar izan du ikastolak gainerakoak adina badela.

—Eta lehenengo ikasleen eta oraingoan artean?

—Lehenengo ikasle nagusienek bestelako jarrera edo jokaera bat zuten. Beraien artean eta bai irakasleekiko ere beste begirunezko harremanak zituzten. Hitz egiteko era, zeharo desberdina zen.

Izan ere, gizartean izandako aldaketa kontutan harturik, ezinbestekoa da ikas-



Andereño Maritxuren Omenaldia. Maritxu eta Agurtzane, hasierako andereñoak. Ikastolak izandako lehendakariak: Joxe M.<sup>a</sup> Yarza, Jose M.<sup>a</sup> Arizti, Gotzon Mujika eta Koldo Aulestia.

tolan eta ikasle-irakasleen arteko harremanak ere aldatzea.

Honetaz gain, orduko gurasoen ikastola hautatzea eta gaurkoen motibazioa eta identifikazioa orokorrean desberdinak dira.

Gainera, haur talde txikiagoak zirenez, harreman goxoagoak sortzen ziren.

—Zein errekurtsorekin hasi zineten lehen urte haietan?

—Errekurtso gutxirekin hasi ginen. Ez genuen gelarik eta “Mendizaleak” mendi elkarteak beren gela eskaini zigun;

gero, etxe batetik bestera ibili ginen, beharren arabera.

Materialari dagokionez, bi liburu bakarrik genituen: *Martin Txilibitu* eta *Xabiartxo*. Txotxak eta pottokak (kaniak) erabiltzen genituen, irakurtzen, idazten eta zenbatzen ikasteko.

—Zein izan zen edo izan ziren ikastola sortzeko punturik gorenak?

—Euskaldun hurrek euskal heziketa jasotzeko eskubidea zutenez, eskubide hori errealitate bihurtzea izan zen urte haietako punturik gorena.

—Zer da hasierako garai haietatik gehien falta duzuna?

—Badakigu talde txikian lan egiten denean, beste giro goxo batean mugitzen dela. Giro hori, gainera, izkutuan ibiltzeak, errekurtsio faltak, ikastola aurrera ateratzeko guraso guztien beharra izateak eta horrelakoek areagotu egiten dute. Nolabait sendotu eta hobetu egiten dira harremanak.

Ikastola handitzeak instituzionalizazioa eta profesionalizazioa dakartza. Beste era bateko harremanak sortzen dira, lehengo “militantzia” alde batera utziaz. Ni orduko giroaz asko oroitzen naiz.

—Irakaskuntza metodoak aldatu al dira?

—Lehen esan dizudan bezala, metodoak ez dira estatikoak; mugitzen doaz beti, hobetu nahian, nahiz eta behin baino gehiagotan lehengora itzuli behar izan.

Beste alde batetik, material berriak ateratu dira, errekurtsioak ere gehitu egin dira eta honek ere aldaketak dakartza.



### ZUAITZAK

AK EK UK OK IK

ak ek uk ok ik

A-diz-ki-de be-ri ba-te-ga-tik,  
ez u-tzi za-ra.

A-diz-ki-de o-nak be-a-r-ga-ra-  
ye-tan e-za-gu-tu oi di-ra.

Ba-koi-tzak be-re o-pi-la-ri  
i-ka-tza.

Be-ri-ke-ta as-ko du-e-nak,  
gauz on gu-txi.

“Martin Txilibitu”.

—Nola ikusten duzu ikastolaren etorkizuna?

—Ni optimista naiz, badakizu, eta badut itzaropena ikastola euskal eskola publiko bihurtuko dela, erreforma dela eta

— 28 —

Aingeru maite zoragarria  
zorigailtz bat eztezuna,  
seaskan orla mugira geldiz  
amets egiten dezuna;  
zeñen goxoak diran zuretzat,  
nere maitetxo kufuna,  
amon xañaren kantuak eta  
seaskatxoan kunkuna!... *E. Arrese*

### ERIA



Etxe asko alkatzen bertan biltzen diranean eria egiten dute.

Eri batean kaleak edo kafikak, enparantzak, ibiltokiak, lantegiak, ostatuak eta beste gauz asko ikusten ditugu.

Eriko-etxean, eria zaindu ta zuzentzen dutenak biltzen dira.

Ibayak alde batetik bestera igarotzeko izaten dira zubiak.


Eliza Jainkoaren etxea da, eta Berari otoi egitera joaten gera Elizara.

“Xabiartxo”.

16 urte arte irakasteko baimena lortuko dugula... Nahiz eta orain “Euskal Gobernua” izan, aspaldi hasitako burruka jarraitu beharko dugu.

*Larraitz Garmendia*

**GAIAK • TEMAS DE ACTUALIDAD**





# GAIAK

---

Gure Ikastolaren historia gogoratu dugu aurreko orrietan. Iragana ekarri dugu gogora. Joandako garaia.

Ikastola ez da, ordea, atzera begira bizi. Ez horixe! Gaur ere badu zer pentsatua eta zer hausnartua. Izan ere, aro berri baten atarian gaudela esan daiteke.

Eta, jakina, galdera ugari dator burura:

- Zer leku betetzen dute Ikastolak eta

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAK bailarako ikastetxeen artean?

- Nola doa EUSKARAREN IRAKASKUNTZA Ikastolan? Zer diote egindako saioek eta esperientziak?
- Zer leku dute Ikastolan EKINTZA ESTRAESKOLARREK? Gora ala behera doaz?
- Nolakoa izango da laster batean martxan jartzekoa den HEZKUNTZA

SISTEMA BERRIA? Nolako eragina izango du?

- Eta zer gertatuko da azkenean herriaren indarrak sortu zen Ikastolarekin? ESKOLA PUBLIKO bilakatuko al da inoiz?

Gai guzti horiek eta guraso batek egindako gogoetak aurkituko dituzue ondoko orrietan.

ETORKIZUNERA begira bait gaude!

## I.- A, B eta D ereduak Altza-Herrera-Bidebietan.

Ederki kostata bada ere, poliki ari omen da euskarazko irakaskuntza zabaltzen. Horrela diote behintzat. Gero eta ikasle gehiagok aukeratzen omen ditu "B" eta "D" ereduak —hau da, elebiduna eta euskarazkoa—, erdara hutsezkoaren kaltetan...

Zer neurritan gertatzen da hori, ordea? Zenbaterainokoa da joera hori? Zer diote zenbakiek?

Merezi zuen, gure ustez, hori aztertzeak eta horrexegatik datu batzuk bil-tzen saiatu gara. Ondoko koadroetan ikus daitezke ondorioak.

*Los cuadros que presentamos en las páginas siguientes recogen el número de alumnos matriculados en los diversos centros y modelos lingüísticos, en la zona de Altza-Herrera-Bidebieta:*

- a) El primero recoge el total de alumnos matriculados en cada centro, distribuidos por modelos lingüísticos.
- b) El segundo hace referencia a los alumnos de tres años, es decir, a los que se han incorporado este año a la escuela.

*De la comparación de ambos cuadros se deduce que los alumnos de la zona tienden cada vez más hacia los modelos "B" (bilingüe) y "D" (en euskera), dándose un vertiginoso descenso del modelo "A" (en castellano).*

*Puede verse, asimismo, que es la ikastola el centro de la zona que tiene el mayor número de alumnos de tres años.*

### a) ESKOLAURREA + O.H.O.

	A	B	D	GUZTIRA	
				IKASLEAK	%
1. Pub.	208	—	—	208	5,6
2. Pub.	177	201	—	378	10,1
3. Pub.	101	170	—	271	7,3
4. Pub.	253	213	—	466	12,5
5. Pub.	44	102	—	146	3,9
6. Pub.	—	—	32	32	0,9
7. Pub.	273	84	—	357	9,6
<b>PUBLIKOAK</b>	<b>1.056</b>	<b>770</b>	<b>32</b>	<b>1.858</b>	<b>49,8</b>
8. Pri.	240	—	—	240	6,4
9. Pri.	—	476	—	476	12,7
10. Pri.	590	—	—	590	15,8
<b>PRIBATUAK</b>	<b>830</b>	<b>476</b>	<b>—</b>	<b>1.306</b>	<b>35,0</b>
11. IKASTOLA	—	—	570	570	15,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>ik. 1.886</b>	<b>1.246</b>	<b>602</b>	<b>3.734</b>	<b>100</b>
	<b>% 50,5</b>	<b>33,4</b>	<b>16,1</b>	<b>100</b>	

### b) 3 URTEKO IKASLEAK



	A	B	D	GUZTIRA	
				IKASLEAK	%
1. Pub.	8	—	—	8	3,8
2. Pub.	—	21	—	21	10,0
3. Pub.	—	15	—	15	7,2
4. Pub.	—	25	—	25	12,0
5. Pub.	8	33	—	41	19,6
6. Pub.	—	—	11	11	5,3
7. Pub.	—	—	—	—	—
<b>PUBLIKOAK</b>	<b>16</b>	<b>94</b>	<b>11</b>	<b>121</b>	<b>57,9</b>
8. Pri.	2	—	—	2	0,9
9. Pri.	—	30	—	30	14,4
10. Pri.	5	—	—	5	2,4
<b>PRIBATUAK</b>	<b>7</b>	<b>30</b>	<b>—</b>	<b>37</b>	<b>17,7</b>
11. IKASTOLA	—	—	51	51	24,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>ik. 23</b>	<b>124</b>	<b>62</b>	<b>209</b>	<b>100</b>
	<b>% 11,0</b>	<b>59,3</b>	<b>29,7</b>	<b>100</b>	

DATUAK: 1990-91 ikasturteko aurreinskripzioa.

**EREDUAK**


a) Eskolaurrea + O.H.O.

b) 3 urteko ikasleak.



- “A” eredia behera doa abiada handiz: denera 50,5 ari dira eredu horretan; 3 urtekoetan, berriz, % 11 baizik ez. HIRU URTEKO 23 HAURREK BAIZIK EZ DUTE EREDU HORI AUKERATU!
- “B” eredia, aldiz, gora doa: denera % 33,4 ari dira eredu horretan eta 3 urtekoetan, berriz, % 59,3.
- “D” eredia ere gora doa: denera % 16,1 eta hiru urtekoetan % 29,7.

**IKASTETXEAK**



- Hiru ikastetxe ari dira “A” eredu hutsean — publiko bat (1) eta bi pribatu (8 eta 10)— eta hirurei behera doakie matrikula.
- Hiru urteko ikasleekin 4 ikastetxe ari dira “B” eredu hutsean eta beste bat eredu horretan ari da batez ere. (5, 6 eta 7 ikastetxeak ez dira guztiz alderagarriak, Eskolaurrekoak bakarrik edo O.H.O.koa bakarrik bait dira).
- Ikastola da “D” ereduan sendoen ari dena. Publiko bat ere ari da Eskolaurrean eredu horretan (6), baina ikasle gutxirekin.
- Ikastola da, orobat, ikasle gehien izateko joera erakusten duen ikastetxea: denera bigarrena da, pribatu bati gertutik jarraituz; 3 urtekoetan, berriz, aurrena da nabarmen, ikasle guztien laurdena ia berea duelarik.



## II.- EUSKARA ETA IKASTOLA.


Haur euskaldunek, beren herrian, euskal heziketa jasotzeko aukerarik ez izateak eragin zuen, nagusiki, ikastolen sorrera.

Herri Ametsak, inguru erdalduneko beste hainbat ikastolak bezalaxe, hasieratik heldu behar izan zion, baita ere, euskara galdurik zuten nahiz familia erdaldunetako haurren euskalduntzeari.

Beraz, bi konpromezu hartuz joan da ikastola: haurrei **euskara** irakastekoa baita, eta **euskaraz** irakastekoa bestea.

### Hasierako egoera.

Hona hemen lehen bi urtetako datu batzuk orduko errealitatea kokatzeko:



Teoriek ziotenez 10 haur euskaldunen artean erdaldun bat sartuz gero erraz euskaldun zitekeen. Herri Ametsako proportzioak desorekatuxeagoak egon arren, bazeuden desoreka hori leuntzen lagungarri ziren zenbat aldagai. Adibidez:


a) Ikasle erdaldunen gurasoen euskararako identifikazio maila, garaia zen.

b) Euskararen iraupen eta berreskuratzearen aldeko borroka, gertakari sozial bat zenik ezin uka errepresio garai hartan.

Guzti hauek eraginda, erdaldunek oztopo gehiegirik gabe jasotzen zuten euskara orohar.

### Egoera berria.

Urteak joan ahala, ordea, baldintza hauek aldatuz doaz, gizartea bera aldatuz doan heinean eta hona gure ikastolan 20 urte beranduagoko datuak, hau da, 1986-87 ikasturtekoak:



### Saioak.


Hizkuntz ezagupide maila desberdinetako haurrak izanik, gure kezka zera zen, zein ote zen tratamendurik egokiena:

—Haur guztiak elkarrekin eta era berean lan eginaz?

—Haurrak hizkuntz-ezagupidearen arauera sailkatzea?

Hortxe sortzen da "B" eredia ere, eta ordurako beste asko bezalaxe, hor genbiltzan ahal bezala eta auzoetan sakabanaturik egoteak ezartzen zizkigun mugen arauera gure probatxoak egiten. Hona hemen:

- 77/78 ikasturtean: Lehendabizikoz bereizi genituen 3 urteko haurrak hurrengo ikasturtean berrelkartu izan bagenituen ere, plangintza arazoak zirela eta.
- 78/79 ikasturtean: 3 urteko haurrak bereizi genituen OHoko 3. mailara arte honela jarraituz.



Jolasean ikasi egiten dute txikienek.

- 80/81 ikasturtean: Altza, Herrera eta Intxaurrendoko haurrak elkartu eta:
  - 3 urtekoekin 3 gela sortu ziren, euskaldunak, erdaldunak, erdieuskaldunak.

—4 urtekoekin 2 gela.

—5 urtekoekin 3 gela.

- 81/82 ikasturtean: Aurrerantzean beti banaturik jarraitzen dugu. Euskolaurreko haur erdaldunekin saio intentsiboen lehen esperientzia hasten da.

Ikasturte honetatik aurrera hasten gara 1. mailako haur erdaldunei euskara-errefuertzio saioak ematen.

Garai hartan iritzi eta teoria kontra-jarriak zeuden haur erdaldun eta erdieuskaldunen hizkuntz pedagogiari buruz.

Zalantzak zalantza eta kezkek kezka, gure ikastolan "D" ereduarekin jarraitzearen alde definitzen ginen, nahiz jadanik haur erdaldunek atentzio eta errit-

mo berezia behar zutela oharturik egon. Horregatik, lehen pausoak ematen hasi ginen haurren bereizketan, haur erdaldunak edo erdieuskaldunak ugaritzen bait zihozten. Honen lekuko dira goian aipaturiko zenbait urtetako joan-etorriak.

- 84/85 ikasturtetik aurrera euskara-errefuertzio saio horiek zabaldu egiten ditugu eta Eskolaurre osoan ere ematen hasten gara.

Izan ere uste bait dugu bide honetatik lor dezaketela ikasleek, irakurketa-idazketa euskaraz egin ahal izateko derrigorrezko den euskararen oinarrizko ezagupidea.

#### Laburbilduz.

Gaurdaino beraz, honela ari garela esan daieke:

- 3 urteko haurrak, bi taldetan banatzen ditugu.

- Banaturik jarraitzen dute 3. mailara arte.
- Lehen 4 ikasturteetan euskara-errefuertzio saioak ematen dizkiegu.

#### Errefuertzio saioak.

Eta zertan datza ba, laguntza edo errefuertzio berezi hau? Gela berezi batetan eta irakasle jakin baten eskutik, egunero hartzen dira Eskolaurreko umeak talde txikitik (6-8) eta 15-20 minututako saiotan, intentsiboki euskara lantzen.

Zein xedekin?

—Entzumena eta aho espresioa lantzea.

Nola?

—Oinarrizko egitura, hiztegi eta abar errepikapenez jasoz.

—Banaka hitzegin eta irakasleak zuzentzeko aukera ugariagoak eskainiz.

—Giro egoki, atsegin eta motibagarri bat lortuz, olerki, bideo, abesti, antzerki, giñol eta ipuinen bidez.

#### Mende laurdenaren ondoren, norantz?

Herri Ametsan 25 urte daramatzagu euskara errekuperatze saioan gure aletxoak jartzen.

Eskolak bakarrik ezin du ordea ikaslegoa erabat euskaldundu, kontutan izan beharko bait dira bere bizitzako beste eremu sozial eta afektiboak ere.

Euskara beti da ikastolan ardatz nagusia, baina hori ez da aski. Agian gaurregun erortzen garen hutsegiterik handienetarikoa bat, haur bat euskalduntzeko, eskolarekin aski dela pentsatzea litzateke. Ikastolak ezin dezake berak bakarrik eta ingurunearen presiorik gabe,

hizkuntza eskolaz kanpo erabiltzeko premia funtzionalik gabe euskaldundu.

Garai batean Ikastola izan zen herri giroko ekintzen dinamizatzailea: Kultur asteak, euskal jaiak, irtenaldiak, gurasoak euskalduntzeko klaseak, umeen jaiak eta abar...

Urteak joan ahala, sortuz joan da euskararen arloa jorrazten duen beste

zenbait erakunde: auzotegiak, kultur etxeak, liburutegiak, euskaltegiak, udalekuak...

Herri Ametsa beste ikastola guztiak bezalaxe, geroz eta gehiago ari da murgiltzen hezkuntz-irakaskuntza esparruan. Zeregin honetan garrantzi handia ematen diogu, ordea, haurrek ekintza es-traeskolar eta osagarriak euskaraz egin

ahal izateari. Ezin ahantz bait ditzakegu gure haurrek euskaraz bizitzeko oraindik ere dituzten traba eta oztopoak.

Izan ere, Foru Aldundiak, Udaletxe nahiz erakunde pribatuek eraturiko ekintza guztietan gaztelera da hizkuntza nagusia eta ia beti bakarra.

Egoera honen aurrean, derrigorrezkoa dugu zulatzaille papera jokatzea, berriro ere etengabeko borroka honetan, dagozkigun eskubideak izan ditzagun.

*Andereño batzuk.*



Irakasleak bileran.

*El número creciente de alumnos no vasco parlantes ha llevado a la Ikastola a experimentar diferentes formas de aprendizaje intensivo del euskera.*

*En la actualidad se reúne a los alumnos no euskaldunes formando grupo propio hasta 3.º de EGB, donde se mezclan todos los alumnos. Durante los cuatro primeros años se les da sesiones de refuerzo del euskera, en grupos reducidos y con una metodología intensiva.*

*Se ve, sin embargo, que ese "refuerzo" debería darse también fuera del ámbito escolar.*



### III.- ESTRAESKOLARRAK.

Gure Ikastolan ekintza estraeskolarrak umeen kultura eta heziketaren osagai-tzat ulertu izan ditugu. Ondoren, atalez atal, gai bakoitzaren historia laburbilduz eskaintzen dizuegu.

**Dantza Taldea** 1979-80 ikasturtean hasi zen eratzen. Irakasle berri, guraso eta barruko irakasle batzuen artean Dantza Komisia osatu zuten. Gaur egun, nahiz eta partaide batzuk ezberdinak izan, era berean jarraitzen du.

Azken hiru urte hauetan beherakada txikia jasan ondoren, umeen kopurua mantentzen da (ehun, gutxi gorabehera).

Talde honen emanaldiak inguruan dauden auzoetako jaietan izaten dira gehienbat, eta baita Maiatzeko jaunartze-tan ere.


1980-85 inguruan **Txistu eta Abesbatza** klaseak antolatu ziren. Solfeo pixka bat ikasiz, abesti eta dantza batzuk eza-gutuz, ordu lasai eta umoretsu bat pasatzen zuten musikaz eta giroaz disfruta-tuz. Herrerako jaietan parte hartzen zuten eta baita Ikastolako Dantza Taldearekin batera agertu ere, bai Ikastola-ko jaialdietan, bai urteroko Eskolarteko Txapelketan, bai lehenengo jaunartze de-netan. Berrogei ikasletik gora zeuden eta haietako batzuk oraindik ere euskal ohit-ura, folklore eta kultura zabalduz di-hardute.

Abesbatzan bi urtetan aritu ginen. Hi-rurogeiren bat kantarik osatzen zuten abesbatza, hamaika abesti kantatuz, bi, hiru eta lau abotsetara.

1.977an, ikurrina aurrean generama-la atera ginen lehenengo aldiz Donostia-ko **danborradan**. Geroztik 69 umeko konpainia bat ateratzen da urtero.



Futbol taldea: neskak.



Pilotariak.

Gure folklore eta ohitura zaharrei da-gokienez, ezin ditugu ahaztu urtez urte ospatu izan ditugun **Olentzero eta San-ta Ageda** koruak. Altzako kaleetan ze-har utziak dira gure ahots xumeen oihartzunak.

**Kirol Komisia** aspaldian osatu zen. Helburuak: ikasleei kirol-heziketa eskaini eta norgehiagokarik gabe parte hartu. Gaur egun helburu berekin jarraitzen da.

Futbola eta Judoa lehenetariko kirolak ditugu, 1977-78 ikasturtean. G.I.E.-k ikastolen artean antolatzen zituen lehi-aketetan parte hartzen zen. Garai hartan igeriketa ere egiten hasi zen.

1978-79 ikasturtean ikastolek eskolar-teko kirolean sartzea erabaki zuten. De-nera 554 haur kirol promozioetan eta 75 lehiaketetan egotera iritsi zen.

Kirol mota ezberdinetatik honako hauek aipatuko ditugu: futbola, judoa, igeriketa, atletismoa, eskubaloia, pilota, xakea.

Azpmarratzekoa da guraso, irakasle eta ikasle zaharren aldetik zeuden koor-dinapena eta laguntza. 1983-84 ikastur-tetik aurrera, partaidetza jaisten hasi zen. Gaur egiten diren kirolak hauek dira: futbola, judoa eta igeriketa. Moni-tore batzuk ikastolako gurasoak dira —batzuk urte asko daramatzelarik— eta besteak ikastolatik kanpo hartuak. Azken hauei etuskaldunak izatea eta umeei euskaraz irakastea eskatzen zaie.

Gai guzti hauen inguruan **makina zo-rion eta etsipen** hartuak gara. Denek, bai guraso, irakasle eta ikasle, bere boronda-terik onenak jarriak dituzte eta gaur egun ere hor jarraitzen dute oraindik be-ren ametsak betetzen. Dena den, beti ohi den bezala, batzuk dira lana eskaintzen dutenak eta, nola ez, horiei eman behar dizkiegu eskerrik beroenak.

Gaurtik aurrera, orain arte egindako bezainbat betebeharrak geratzen zaigu eta itxaropentsu sentitzen gara, ala ez? Ez al zaizu beharrezkoa iruditzen gai guzti hauen inguruan zure haurra hezitzea?

KULTUR BATZORDEAK.



Dantza taldea: neskak.



Dantza taldea: mutilak.




Olentzeroa



Igeriketa taldea.



Hondartzako futbol taldea.



Judoa.



Xake: Gipuzkoako txapeldunak eta Euskadiko bigarrenak (1983-84, Gasteiz).



Abesbatza San Telmon. 1984



Txistulari taldea (Villafranca del Penedes)

## IV.- HEZKUNTZA SISTEMAREN ERREFORMA.


Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak iragarria duenez, datorren ikasturtean, 1991-92an, hezkuntza sistema berria estreinatuko dugu, inongo atzerapenik sortzen ez bada.

Gaur daukagun hezkuntza sistemaren oinarria, 1970ean eman zen **Ley General de Educación** delakotik datorkigu. Bitartean, aldaketa ugariak eta sakonak eman dira gizarteko arlo guztietan. Gaur

eguneko mundu honek dituen beharrei erantzun egokia eman ahal izateko, hezkuntza sistema erreformatzearen erabakia hartu da.

### Aldaketa nagusienak.

Kanpoko egiturari gagozkiola, grafikoa ikus daitezke oraingo sistemaren eta berriaren arteko aldaketa nagusienak.



Bi grafikoaren kanpoko egitura konparatuz, aldaketa hauek azpimarra ditzakegu:

1. Grafikoen azpikaldetik hasita, ikus, Haur Hezkuntza lehenago hasten dela sistema berrian. Halere, ez da obligatoriotzat jo sei urte bitarteko Haur Hezkuntza, zenbaiti eztabaidagarri baderitzaio ere.

2. Goraka jarraituz, aldaketa garrantzitsuenetako bat: Oinarrizko Hezkuntza Obligatorioaren luzapena, 16 urte bitartean. Bi zatitan emango da: Lehen mailako Hezkuntza, 12 urte artekoa, eta 16 urte arteko Bigarren mailako Hezkuntza **Obligatorioa**, hitz hau azpimarratuz, bigarren mailako hezkuntzak beste bi urtetan jarraituko baitu.

3. Batxilergoa edo Bigarren mailako Hezkuntza Postobligatorioak, bi urte iraungo du. Batxilergo mota desberdinak emango dira: Humanitate eta Gizarte Zientzia, Natur Zientzia eta Osasunarena, Teknologiarena, Lanbide Hezkuntzatik beste motako batxilergoa emango da.

4. Lanbide Hezkuntza: "Modulo"etan banaturik emango da. Lehenengo mailako moduloa Hezkuntza Obligatorioan emana izango da. Bigarren mailakoa, 16-18 urte arteko garai honetan emango da, espezialitate desberdinetan.

5. Azkenik, 3. mailako moduloa agertzen zaigu. Maila honetako ikasketak praktikaren esperientziaz, lan munduan, enpresetan, e.a., osatuak izango dira. Erdi mailako teknikari kualifikatuaren kategoria izango du. Unibertsitatetik edo lan mundutik jarrai daiteke.

## Erreformaren filosofia.

Liburu Zurian, Erreforma Egitasmo-rako ematen diren Helburuetan hiru eratako helburu adierazten da:

1. Oinarriko Hezkuntzaren hedakuntza. Egungo gure gizartean behar diren oinarriko edukiak, ezin dira eman oraingo OHOk zortzi urteetan. Europako herrialde gehienetan bezala, hamar urtetako eskolatze obligatorioa eta dohai-nezkoa emango da.

2. Irakaskuntza kalitatearen hobekuntza. Bi ikuspuntu ematen dira: ikasleen sozialtzea, eta hezkuntza pertsonalizatua.

3. Hezkuntza sistema egituraren erreforma. Lerro nagusienak aipatuz:

—Bigarren mailako Hezkuntzan biltzen dira berrikuntza garrantzitsuenak; bere nortasun berezia duen etapa sortu nahi da: ikasleak oinarri tinko eta zabal-len jabe izan daitezen, eta aukerak egoki egiteko ahalmena izan dezaten.

—Batxilergoa: lehen aipatutako aldeketekin Unibertsitaterako bide egokiagoak prestatu nahi dira.

—Hezkuntza Profesionala: orain ez bezala, funtzionala izan nahi du. Aurre-rapen teknologikoei, egitura aldaketei eta lan merkatuaren eskaerei egokitua eta, hauen beharrei erantzun aproposa eman-go diena.

---

*El próximo curso 1991-1992, entrará en vigor la Reforma del Sistema Educativo. Como CAMBIOS más significativos, se pueden enumerar:*

*1. La educación básica obligatoria se amplía: durará 10 años, desde los 6 hasta los 16 años.*

*2. El Bachillerato durará 2 años y englobará diferentes modalidades.*

*3. La Formación Profesional constará de "Módulos" de 3 niveles. Se podrá acceder al nivel 3, tanto desde el Bachi-*

Hauek direla, esan daiteke, eman diren aldaketa nagusiak eta horretarako oinarritzat erabili den filosofia. Orain, arrakastarik baduen ala ez ikusi behar. Eguneroko praktikak esango digu beharrezko baldintzak elkar lotzerik eta maitzerik badagoen eta badakigun.

*Luis Mari Satrustegi.*

---

*llerato como desde la FP. La titulación será la de un técnico medio cualificado, que dará opción a integrarse en el mundo del trabajo o a continuar estudios universitarios.*

*Las ideas base de su FILOSOFIA son:*

*1. La ampliación de educación básica.*

*2. La mejora de la calidad de la enseñanza.*

*3. La reforma de la estructura del sistema educativo.*

---

## V.- CRONOLOGIA DE UNA ASIGNATURA PENDIENTE.

Herri Ikastetxe izateko bokazioz sortu ziren ikastolarik gehienak. Erakundeek betetzen ez zutena betetzeko asmoz, alegia.

Azken urteotan zenbait pauso eman dira bokazio eta asmo zahar hura bideratzeko. Eusko Jaurlaritzak eskaintza batzuk egin zizkien ikastolei bai eta hauek bakoitzak bere erantzuna jakin erazi ere. Herri Ametsak baiezkoa eman zion Herri Ikastetxe izateko xedeari.

Azken erabakiaren oinarri izan daitekeen "Euskal Eskola Publikoaren Legea" falta da oraindik, ordea, eta azken hitzik ezin esan.

Emandako urrats guztien kronologia ematen zaigu, argi eta zehatz, ondoko artikuluko honetan.

Este artículo pretende realizar un repaso cronológico de lo que podemos definir como nuestra asignatura pendiente: la PUBLIFICACION DE LAS IKASTOLAS.

En Enero de 1987, en el Pacto de Gobierno PNV-PSOE, en materia de Educación se plantea como objetivo la consolidación de una única Escuela Pública Vasca, democrática, plural y de calidad. Para ello se procedería a la elaboración de una Ley de Integración de las ikastolas en la red pública, tratando de buscar el acuerdo entre los sectores afectados.

En Diciembre de 1987 se suscribe un

Acuerdo Político entre la Consejería de Educación y las Federaciones de Ikastolas de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa (AIE-BIE-GIE).

Se trata de una propuesta de acuerdo que se articula en seis puntos, al objeto de trazar un plan detallado que contribuya a la reorganización del sistema educativo vasco y fijar el régimen de financiación correspondiente al sostenimiento y saneamiento económico financiero de las ikastolas integradas en AIE-BIE-GIE, hasta que la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco asuma su titularidad formalmente.

En Junio de 1.988 el Parlamento Vasco aprueba la Ley 10/1988 para la confluencia de la Ikastolas y la Escuela Pública.

El mencionado propósito se fundamenta en la reiterada voluntad de la mayoría de ikastolas de transformarse en Centros Públicos.

La reordenación de las redes educativas se entiende en este marco como un proceso de confluencias entre la red pública y la red de ikastolas cuyo resul-

tado final sea una escuela pública enriquecida por las aportaciones mutuas.

Es el propósito de esta Ley habilitar al Departamento de Educación para suscribir convenios particulares con las ikastolas, en orden a regular el régimen de transición a la condición plena de Escuelas Públicas.

En Febrero de 1989 la Ikastola Herri-Ametsa, por decisión mayoritaria de los padres, se posiciona por la Escuela Pública Vasca y a su vez aprueba la cesión del patrimonio, de acuerdo al contenido de la Ley 10/1988.

En Mayo de 1989 se firman los Convenios particulares entre el Departamento de Educación y las Ikastolas.

Dicho convenio inicia su efectividad el 1 de Enero de 1989 y su duración, según el artículo 6 de la Ley 10/1988, es de un año; prorrogable automáticamente salvo denuncia de una de las partes formulada con un mes de antelación a su expiración, sólo en el caso de que no se haya aprobado con anterioridad la Ley de la Escuela Pública Vasca.

El posicionamiento de las ikastolas ante el Convenio fue el siguiente:

	COMUNIDAD AUTONOMA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Total Ikastolas	141	23	47	71
Firman convenio	132	23	42	67
No firman convenio	9	0	5	4
Cesión patrimonio	99	22	30	47
Sin cesión patrimonio	33	1	12	20



*En Noviembre de 1989 el Departamento de Educación prorroga el Convenio para 1990, pero a su vez lo denuncia con efecto a partir del 31 de Diciembre de 1990.*

*Según el documento presentado por el Departamento de Educación, la falta de acuerdo existente en el seno de los partidos del Gobierno (PNV-PSOE) sobre la conveniencia de la promulgación de la*

*Ley de la Escuela Pública Vasca hace razonable pensar que el proyecto correspondiente sufra un aplazamiento por un tiempo indeterminado.*

*Como podemos ver, han transcurrido 4 años desde que se inició el proceso sin que se le haya dado una salida satisfactoria.*

*Seguimos manteniendo nuestro objetivo de confluencia de las Ikastolas y la*

*Escuela Pública en el marco de la Ley de la Escuela Pública Vasca y esperamos que se pueda cumplir en esta nueva legislatura que acabamos de iniciar.*

*¡Que esta asignatura pendiente obtenga la calificación de aprobado para todos los sectores afectados!*

Koldo Aulestia.

---



## VI.- 'HERRI AMETSA'AREN AMETSAK ETA AMESKAITZAK.

Letra hauen bidez aditzera eman nahi den mezua ez da Herri Ametsa bakarrik gogoan izanik mamitu den zerbait. Ikastola, Herrerakoa den bezala izan zitekeen Lapuebla de Labarkakoa. Gogoeta labor honetan dena dago barne edota ez dago ezer: jeneralizazioaren arriskuarekin jokatzen dugu, beraz.

### AMETSAK.

Hastapen haietan, bestetakoen antzera, Herri Ametsako guraso, irakasle-andereño eta eragile guztien gogobihotzetan ideia nagusi bat egongo zen barrunbe urdurian: hizkuntzen biziraupena bermatzeko bide-ardatz nagusia irakaskuntza da. Seguruena, gehien-gehienek hori pentsatzen zuten eta hori pentsatu izan da urte luzetan: euskararen salbazioa hezkuntzatik dator.

Amets-motor horrek eragin du Ikastolen giza-mugimendua orohar. Altza, Herrera, Intxaurrondo eta inguruko euskaltzaleen gogo-garunetan ere ez zen hortaz hori baino ideia-konbentzimendu sendoagorik aurkituko bila hasi izan bagina. Eta eskerrak, gauzak horrela bideratu direla; eskerrak, uste hori, uste-motore bilakatu izan dela. Zeren gerago, azken urteotan esango genuke, hizkuntzen biziraupena eta sustapena orduko usteek uste zuten baino korapilatsuagoa dela ikus erazi bait dute.

Gerokoak gero; halaz guztiz ere, zera aitortu beharrean gaude: Herri Ametsaren ametsak neurri handi batean uzta bikain bilakatu direla hogeitabost

urteotan. Esan nahi baita, Ikastolaren sorrera haietan amesten zen hazkundera eta arrakasta bere kabuz eta izerdiz, paregabeki lortuak dituela. Beste kontu bat da, amets horietan, amets-uste oker asko egotea euskararen salbazioaren ingurumarian. Alegia, urteak joan urteak etorri, Ikastolaren ingurune soziolinguistikoa ez dela euskararen aldera lerratu eta, hainbestean, Ikastola-irakaskuntzaren eragina, egon diren baldintza orokorretan egituraturik egonik, antzu eta indarge agertu dela.



### AMESKAITZAK.

Paradoxa baten aurrez-aurre dago beraz delako euskaltzalea: alde batetik, Herri Ametsa hazi eta sendotu egin da, inoiz inork pentsatuko ez zuen modura gainera; bestetik, aldiz, ametsak egia bihurtu ahala barruan har ustelgarriren bat dagoenaren susmoak piztu dira gero eta irmoago. Beste herrialdetan, antzeko esperientzietan, hezkuntza elebidunak zernolako emaitzak eta mugak izan dituen jakin gabe jardun izan da urte luzetan, eta ezjakintasun hori, gorago genion bezala, ez dakigu ez ote zaigun onuragarri gertatu euskaldunoi. Informazio zehatz eta zuzena egon izan balitz, irakaskuntzaren egiazko mugak norainokoak ziren jakin izan balira, euskaltzale sutsu horiek lehenenak egingo ote zituzten? Ez dakigu jakin, zeren honelako asmo eta mugimenduetan, kontzientziak adina funtzionatzen du inkontzientziak, eta ezin da aurreikusi zer gertako zen eskema arrazionalista hutsen argitan.

Gauzak asko aldatu dira geroztik, batzu onerako beste batzu txarrerako. Onerako, besteak beste: gizarte arras erdaldundu batean euskaldungoa bere gune-zirrikitoak ireki ditu indar sozial nagusiak bere kontra dituenan. Guneak, gunetxo dira noski, baina horrek ez du meritua gutxien eta meritu horien artean dago Herri Ametsaren borroka eta lana. Askoren lana eta izerdia izan dira, gaur begien aurrean ikusten duguna: egun eskaintzen zaiguna ere ez zitzaigun inoiz eskainiko, bere apurrean, euskaltzale gartsu horien borroka latzen ondorioz ernaldu dena ernaldu izan ez balitz. Txarrerako, adibidez: nola-halako instituzionalizazioak ezarri dituen liluren efektua. Liluramendu honetan gutxi asko, euskaltzale gehientsuenok erori gara, liluraren igorle den mezuak ezarri digun zepoaz ohartu gabe.

Berriro orain, informazioz eta formazioz hornituago, euskaltzaleok gauza izango al gara hainbat urtetan egin duguna egiteko. Herri Ametsako arduradunak aintzindari agertu izan dira hogeitabost urteotan ametsen eta ameskaitzen artean euskaldungoari lurralde berriak aurkitzen. Bihotzik eta kemenik izango al da, izango al dugu, izango al duzu, zepo guztietatik urrun, datozen haur-belaunaldi guztiei zor zaiena emateko: **euskalduntasuna.**

*Guraso bat.*



**“Iturriak Bilduma”**k  
hainbat herri-hiritako ikastolen historiak  
elkarretaratu nahi ditu,  
tokian tokiko inguru hurbiletik  
herritarrek berek jasota.  
Agiri eta argazki historikoen ondoan,  
ikastolaren gidari eta sustatzaile  
izan direnek emandako albisteak eta gogoetak  
bilduko dira liburu-sorta honetan.  
Herriz herri, ikastolaz ikastola  
Euskal Herri guztiko berrien gordailu xume eta bizia  
izango da, hortaz, **“Iturriak Bilduma”**.

Donostiako auzoetan ere piztu zen,  
garaiz piztu ere (1966),  
haur eta gazteen euskalduntasuna  
eskola bidez indarberritzeko asmoa.  
Euskal Herri osoan bezalatsu, noski,  
baina baldintza ongi berezietan, bestalde  
(hiru-inguruan eta etorkin erdaldunekin kontatuz).  
Liburu honetan, Herrera-ko **“Herri Ametsa”** (1966),  
Intxaurren-ko **“Gure Nahia”** (1968) eta  
**“Altzako Ikastola”**ren (1971)  
bizi-historiak gogoratzen dira,  
zilarrezko ezteiak ospatzean (1990);  
hau da, 1979 eta 1984etatik hona  
Altzako Mendiolan **“Herri Ametsa”** ikastolan  
bildu diren indar eta ahalegin sozialen  
historia laburra da hau.  
Herritarren gogo-ametsen kontraera maitatia, alegia.

